

JAU REGIBERRI

—

Lehen Gertaldia

Jaureguiberri-taren etxeko jateko sala. Primaderako gau batez. Hiri bazterrean dagon aberats-etxe ederra: lantegi-nausi batena. Barne luze bezain zabal bat, oraiko gisako muntadurekin. Ate bakarra, ezkerreko bigarren mailean. Ondoan muble (desserte) apal bat, kristal eta zilarrezko botoil eta ganderailu batzu, xanpaña hormatzeko untzi bat (zilarrezkoa hau ere), eta bertze holako afaritzko behar diren batzu. Aipatu ez dugun aldean, kiminea. Ate ondoan bulegoa bere alkiarekin eta bertze aldean telefona. Mahain bat: ez haundia bainan gotorra, arroltzea bezain biribila hobe, ez arras erdian ezarria, eta bere alkiarekin. Afaria, ondarreratua. Su aitzinean larruz estali jar-leku handiak. Murruetan margolari-itxura (tableaux) koloretsuak bainan ez hanbatekoak; ez-kolorezko batzu (gravures) hobeak. Murruetako argi-mutilak (appliques) bi besotako; ke-zilo (cheminée) bazterrean direnak piztuak. Hori guzia itxuraz ez berri, ez eta sobera egon-toki gozoa.

Erri daua altxatzean, Katti, etxeko neskatua, garbi eta ontsa apaindua, ondar platen altxatzen ari da mahainetik. Joanes Jaureguiberri, mahain burukoa. Bertzea, Andere Jaureguiberri, Maritchu Jaureguiberri eta Antton Garakotch, jendeari beha eta Marchel Jaureguiberri, gibeletz, hoik dira mahai-hekoak. Denak jendetasunak galdetzen duen bezala jauntziak. Joanes J., sendoa, harroa, berrogoita hamar urtetan sartua, aise dabilana, bainan ez jostagura. Haren emaztea, adinez gazteago, jite hotzekoa eta gizonartean senarra baino nausiagoa. Maritchu, hogoi bat urteko neskatokoa, biziari irriz, bainan arras minbera. Antton Garakotch, hogoiita hamar urte inguru, irri-egingarri izaiteko gizonegia; hala ere munduko gizonen ibil-moldek lotsa-arazten dutena. Marchel, hogoi urteri hurbilago hogoi ta hamar urteri baino, ez dago sekulan bere buruarekin bakean: erdi-trastu...

(Afaria bururatu-ta hasten dute denak alegeratzon dituen ahusamendu berezi bat.)

Joanes Jaureguiberri : Hea! Oporto-arno hori, Katti (hunek ekarri-ta emaiten hasten da). Ha, ha! (Maritchu-ri emaiten dio). Zure gustukoa izan behar da Oporto hau, Antton, adichkide batek erran zautanaz, zure aitak hortarik edaten bide du. (Maritchuk bere basoa betetzen du eta Antton-i emaiten).

Antton : Beraz ona ditaike. Gure zaharrak bere ustez zerbait badaki. Nik ez dut hontan deusik konprenitzen. (Berak, basoa bete-ta, Jaureguiberri andreari emaiten dio).

Maritchu : Hori ontsa da. Ni ez nindaike gogotik ezkont arno-kondu hoitan sobera trebe den batekin: arnoak sudurra arno kolore duen gizon zahar batekin.

Jauregui : Kasu gero! Nik ez dut oraino arno-koloreko sudurrik.

Maritchu : Ez, oraino ez, bainan...Oporto arnoaren berri ere ez dakizu oraino.

Jauregui : (Andre Jaureguiberrik bere basora arnorik ez duela eman oharturik)Terecha, gaur etzira egon behar edan gabe...besta orhoitgarria dugu gaurkoa (Anttonek Terecha-ren basoa betetzen du)

Maritchu : Ba, ba, amatto. Gure izenean edan behar duzu. (Katti-k platoa hartzen du eta ateratzen da)

Terecha : Haatik xorta bat bakarrik. Milesker (Marchel-i emaiten dio botoila). Ontsa da, Katti. Kafearen hartzeko, sala ttipitik deituko zitugu; hogoi bat minota barne.

- Katti : Ba, anderea (badoa) (Ateratzen da. Denak basoak beterik dauzkate. Jauregui irriz goxoki)
- Jauregui: Ba, ba...Hau ontsa doha. Zinez afari ederra, Terecha. Prestatzalek konplimenduak hartze dituzte.
- Antton : (zuriki) Denak arras ederki.
- Terecha : Joanes; holako gauzarik ez da erraiten.
- Jauregui: Oh! Etxekoa bezala dut, Antton. Ez ahal du gaizki hartuko.
- Maritchu: Antton, hea gaizki hartzen duzun...?
- Antton : (irriño batekin) Ba zera. Familia hau on zaut...betiko. Gosta zaut ederki, ez dea hala? (Maritchu ichilik dagola ohartuz). Ez zirea orhoitzen?
- Terecha : (Berak bezala) Nundik ez litake orhoit!
- Maritchu: (Erdi serio, erdi irriz) Ba bainan azken udan, ez-eta aldi bat ere etzinen jin, kasik, kasik beldurtu bainintzan ez ahal zitzauzula zerbait gertatu.
- Antton : Miletan erran dautzut: lantegiko lanak, lantegiko lanak...
- Maritchu: Etzaude zuhaur lantegi txarra.
- Terecha : Utz-azu, Maritchu. Ezkontzen zirenean ikusiko duzu, gizon langilek beren denbora ta indarrak laneko behar dituztela. Ni usatua niz ba. Zuk ere usatzen hasi behazu.
- Maritchu: Etzaut iduritzen ni usatuko nizala. (Antton-i aitzinean bezala). Kasu beraz!
- Antton : Ba, maitea, ba.
(Marchel irria ezin atxikiz hasten da. Denek behatzen diöte)
- Maritchu: Zer da? Zer xoxokeria duzu gogoan orai berriz?
- Marchel : Ez dakit. Horra, bat batean irri egin-nahia jin zaut...
- Maritchu: Erdi mozkorra zira-ta.
- Marchel : Ni?
- Terecha : Maritchu! Ez da holakorik erraiten. Oraiko neskatokoen ateraldia da hori...
- Marchel : Makurragoen erraiten badaki ba, horrek. Zer uste duzu?
- Maritchu: Hara bertzea! Xorua, alaina...!
- Terecha : Ixo! Ixil ziizte, biak. Eta zure hiltzaldia Joanes?
- Joanes : Ah ba, egia! (zintzurra karrakatzen du eztulka) Ederki, Antton: zuk nahi bezala ohoratzen dugu besta hau etxekoz etxeko. Damurik ez baitira zure burrasoak hemen aurkitzen; bainan European baitaude...bertzerik ezin egin. Erran dautzut zer telegrama hunkigarria igorri daukuten. Behar zen bezalako. Eni, egia-erran, axola guti...hemen ahaiden artean ohoratzea...
- Terecha : Aise hobe.
- Joanes : Ba, bainan hitzaldiaren egitea nekeago hola.
- Marchel : (faltsukeriarik gabe) Ez beraz hitzaldirik egin. Edan dezagun heien osagarriari eta kitto!

- Joanes : Ez, hori ez. Gaurko aratsa da ene biziko zoriont-suenetarik bat. Ta, Marchel, noiz edo noiz alabarik izaiten baduzu jakinen duzu zeren gatik. Zinez erraiten dautzut, Antton, zuk Maritchuren esku-galdatzeak enetzat anitz erran nahi du. Zorion ekarriko dautzu. Eta zuk ere zorion ekarriko dakozu: fida niz. Zu enetako betitik ene ametsetako subia izana zira. Denborak ditu zure aita eta ni sal-erosketa-kondu beti elgarren aitzinka gabiltzala, Garakotchtarrak, Jaureguiberritarrak baino lehenagokoa eta zakarragoa izanagatik. Orai, zuk elgarretaratzen gitutzu eta, agian, egun batez Garakotchtarrak eta Jaureguiberritarrak elgarrekin buruka artzea utzirik, uztartuko ahal dira elgarrekin...erosi behar dena merkatzeko eta saldu behar dena kariotzeko.
- Antton : Ba, horixe! Ene aita asmu horrek loriatuko du!
- Terecha : Joanes, gaur bezalako batean ez ginuke sal-erosterik aipatu behar.
- Maritchu: Ni ere hortako niz. Ez dea hala!
- Joanes : Ba, hala da. Uste gabean lerratua nintzan. Nik erran nahi niina hauxe zen: Maritchuk zorion ederra izan diila eta, nik erra behar banu, zukt ere ba, Antton.
- Antton : Ba eta nolakoa?...oraikoan segurik. (Jaureguiberririk basoa altxatzen du, bera ere xutituz Terechak ere halaxe egiten du)
- Joanes : Maiteak!...Munduak eman dezaken zorionik haundiena amesten dautziit.
- Terecha : (Irriz basoa altxatuz) Antton, Maritchu, ene alaba maitea! Gure zorion beroenak eta gure amets hoberenak!
- Antton : Esker mila (Bere aldian xutitzen da. Terechak Marchel-i xutitzeko erraiten dio).
- Marchel : (Xutitzerakoan, musikatuz). Zorionik hoberenetan hoberena! Biperririk balinbada biperra da, bainan ez du barne gaixtoa. Maritchu...zure graziari! (denak jartzen dira)
- Maritchu: Kaikua, alaina. Holako desira batekin ez dezaket nik edan.
- Antton : Egidazu bat pollitagoa.
- Maritchu: (Xutik, iduri axola-gabe agertu nahiz). Ba, Antton, ori ene bihotza!
- Antton : (patxadan). Milesker. Gaitz guzietarik zainduko dut.
- Maritchu: (Jarri-ta axola-gabe agertu nahiz) Nigarrez hasi behaut...
- Antton : (irriz) Hea hementzeko hunek nigarra xukatzen dautzun (Eraztun baten untzia)
- Maritchu: (Bihotz-guritua) Antton...Hatxeman duzia nahi zinuena?...
- Antton : (eraztun untzia emaiten dio) Hura bera.
- Maritchu: Oh! Ba, ederra (Xutiturik Antton-en ondotik Terecha-ren gana doha) Beha, amatto...Zein ederra eh? (Antton dagon aldera behatzen du) Ene maitea (eraztuna ezartzen du eta Antton-i musu emaiten dio, gero Joanes-en gana johan delarik)
- Marchel : Ez dezagun bururik gal!
- Maritchu: (Eraztunari beha) Xoragarria da. Orai ba, Andregai aurkitzen dutala ene burua.
- Terecha : Arrazoinekin, maitea. Arras joja ederra da. Artarekin ibil-azu.

- Maritchu : Artarekin! (Jartzen da) Izpirik ez niz egonen huni behatu gabe.
- Terecha : Hain da ontsa jina... Antton, zuk kausitu duzula! Joanes, ez baduzu bertze erraitekorik, joanen gira Maritchu eta ni gela ttipirat (xutitzera egiten du).
- Joanes : (ospatsu (solennel) Hau gelditzen zaut erraiteko... (Maritchu eraztunari beha dagola ikusiz) Entzuten nuzuia, Maritchu? Zuri ere doana da. Berdin ez dautziet hitzaldirik maiz egiten.
- Maritchu : Barkatu aita. Segurki, entzuten baitzitut. (Entzuten dagola, jartzen da bertzeak bezala. Joanesek jarraiki baino lehen ixtant bat hola egon-arazten ditu).
- Joanes : Orai hartu duziin ezkontzeko bide hortaz bozkariotan, anitz egun gabe ezkonduko zireztelakoan, hau erran nahi nuke: egun hotan anitz solas dabila eta chochokeria frango ere ba, bainan... Nik, orai badakit esku artean zer dabilkatan eta irrizku handietan usatu gizon bat bezala mintzo niz. Berriz ere erran behar dut: ahantz dezakeziete gauza txar hoik. Memento onean ezkonduko zirezte eta laster bertze bat, hobe, etorriko da.
- Antton : Egia da.
- Marchel : Ba... eta hura, gerla?
- Joanes : Zuk aipatzea atsegin dut, Marchel. Hortara nindoan. Buruzagiak sua darion mintzaldi bat botatzea edo lau aleman gerlako-aitzindarik ontsa edan-ta chochokeria batzu erraitea aski da, zombaitak gerla hortzetan dugula uste izaiteko. Eta nik erraiten dakotet: chochokeriak! Alemanek ez dute gerlarik nahi. Nehork ez du nahi. Balkanetako erresuma erdi-basaki batzuik, ez bada. Zergatik? Dena urrearen gora-beheran baita. Eta gerlarekin, galtze frango eta irabazirik ez.
- Marchel : Ba, bainan...
- Joanes : Ixo bururatu arte, Marchel. Aski jakintsun ahal den lantegi-nausia bezala mintzo niz. Eta hau diot: ez dela gerla molderik. Hain lasterka dohan mundu hunek baztertuko du. Ohart zite oraike aitzinatzeari. Hemendik urte bat edo biga goiti-beheiti gure bi hegaletako airezkoek edozoin tokitarat eremanen gituzte. Eta... beribil-egintza? Gero ta aitzinago doha. Eta itsas untziak? Ene lagun batek joan den astean ikusi du orai egin duten berri hori... "Titanic" izeneko hori... zortzi egun barne itsasoratuko da... berrogoi-ta sei milla ta zortzi ehun tonela, berrogoi-ta sei milla ta zortzi ehun, New-Yorkerat bortz egunez. Errextasun guziak berekin eta nehundik ere... ezin hurbildua. Horieri da behar behatu, gauza horieri, aitzinamendu hoieri eta ez gerlako nausixka eta nun-nahi irriskua ikusten dutenen erraneri. Ziik hiruak, gazteak, adi ontsa eta gogoan har gaurko ene erranak: hemendik hogoita hamar edo berrogoi urteren buruan, eman dezagun bi-milagarren urtean, agian berriz elgarretaratuko zirezte... Ziin seme edo alabaren ezkontzeko hitzemaitea izanen da... Ba, segur izan zitezte, diruaren aitzinean diren xorokeria guziak, gerla ta bertze, ahentziak izanen ditiin mundu batean biziko ziztela. Bake eta aberastasun ezin-gehiagoan... Rusia, beti bezala gibel egonen baita baztertirik (Torechak mozteko keinua egiten dio). Ba xuxen... hori ikusten dut. Ari niz erran eta erran. Bainan ziik, gazteak, ene erraner jarraik. eta holakoek nahi dutena erran dezatela. Guri ere, hartu-emanetan, aferetan giren gizoneri behar zauku behatu. Ahal dakigu bizitzaren berri (Begiaz keinu egiten du) Salt-san sartuak ahal gabiltza leporaino.

- Terecha : (xutituz) Ba, maite, ba, (xutitzen dira denak). Antton-ekin etzitela sobe-
ra luza (aterat doha) Marchel, zato, zure beharretan niz. (Antton-ek Tere-
cha-ren gibeletik pasatuz atea idekitzen du. Terecha ateratzen da. Haren
gibeletik Maritchu eta Marchel. Antton-ek atea hesten du)
- Joanes : (Bulego-mahirat dohalarik) Puro bat? (ateratzen ditu).
- Antton : (Bere jar-lekura joanez) Ez, milesker. Etzaut purorik gustatzen (zigarreta
bat pizten du).
- Joanes : Ez dakizu gauza ona zer den! (Antton-ek bere basoa betetzen du eta botoila
Joanesi emaiten dio). Milesker. (berriz mahainean jartzen da, arras lagun
artean bezala). Hoik hola, gauza bat erran nahi nuke zuei... orai, bakar-
rik giren huntan... Ez dakit, bainan zure amak ene alabari aitzakiarik hat-
zemaiten ez badako ere uste du neskatoko hobe bat har zinezakela emaztetako.
- Antton : Nik ez dut...
- Joanes : Ez, Antton, ez, arrazoin du. Etzakozula hori gaizki har. Familia zaharretik
da, lur frangoren jabe eta gaineratekoak... Ba, ba. Bainan erran nahi nau-
zuna hau da: ondoko egunetan tituludun berrien artean ene izena ere aterako
delako famak segurak dira. Bixtan da, ohorezko titulu xoilak izanen da.
- Antton : Hori haatik berri ona dugu! Zorionak!
- Joanes : Milesker. Oraino goixko da; ez tuntik atera. Zerbait erran dautate... bada-
kizu gure Presidenta hiri huntara jin zenean, ni auzapez nausia nintzan...
Konfiantza eta balio haundiko gizontzat atxiki nute eskualde huntakoek.
Horren gatik ba... Zerbait izanen dutalakoan nago... zerbitzari leial, hiri-
zainekin aferarik ez, zorrik eta gaitz-biderik gabe segitzen badugu segurik...
(irri egiten du airoski).
- Antton : (hau ere irriz) Itzalik gabeko jendakia egiten duzui.
- Joanes : Zerbait gostarik... Eta orai ixo, ez hitzik ere.
- Antton : Ene amari ere ez? Berri hunek gazte lezake.
- Joanes : Ontsa da... Itzultzen zirenean errozu zerbait. .bainan gure bizi-moldea gar-
bi ager dadila, he...
(Biek irri egiten dute. Marchel sartzen da, ate ondoan geldituz)
- Marchel : Ixtorio kondan ari?
- Joanes : Ez. Bertze Oporto bat nahi duzuia?
- Marchel : (atea hetsirik mahainera hurbiltzen da) Ba, milesker (basoa betetzen du)
Amak erran du ez luzegi egoiteko. Bainan daukat ez duziila hartaz axola
haundirik. Berriz ere jauntzi-solasetan utzi ditut. Neska bat ezkontzen de-
nean iduri luke ez duela behin ere ziarik jauntzi (jartzen da).
- Joanes : Gogoan har-azu emaztearentzat jauntziek halako zerbait berezi badutela....
Jauntzi bat ez da beztitzeko zerbait bakarrik edo pollitagotzeko... Nola er-
ranen dut ba?... Jendeak diin nortasunaren agerbide bat bezala da.
- Marchel : Ba... gogoan dut...
- Joanes : Zer duzu gogoan?...
- Marchel : Deus ez.
- Joanes : Deus ez?...
- Antton : Ez da hori arras garbi.

- Joanes : (irriz) Nor-nahik dakiena da egungo egunean. Horrek duen adinean, nik izan dutan baino diru gehiago eta denbora gehiago duela enpoiltzeko. Ordian ba ateratzen ginuen izerdia eta beti diru-eskasa...Halore noiztenka jostatzen ginen...Ba uste nuke jostatzen ginela!
- Antton : Baterez gaizkiago heltzen...
- Joanes : Ez dautzuet berriz predikurik egin nahi. Bainan ez duzue konprenitzen, orai bizia errexagoa delakotz, gizonak aski duela bere buruari eta bere familiari (izaiten diinean) behatzea. Bertzen sailetan sartzen ez deno etzakola zori txarrik gertatuko. Egia erran, orai izkributan eta predikutan ari diren zonbait xoroenetik ariz, ez ginuke batzuek bertzeri beha egoitea baizik kofoin bereko erleak iduri...Bethi batasune eta elgarretaratze! Nik hitz dautzuet, mutikoak, bizitzeak hola erakutsi baitaut, gizon batek aski dituela bere afera ta gora-beherak zuzen erabiltzea, eta hori egiten badu... (sartzeko atean arrabotsa aditzen da; Joanes ixiltzen da, entzuteko).
- Marchel : Atea jo dute.
- Joanes : Nor ote da? Hea, Antton, bertze chorta bat eta emazte hetara joanen gira. Hola etzirezte eneaturko.
- Marchel : Ba, gure zaharra. Gaurko huntan heldu zitzauntzun erran ahala.
- Joanes : Egun berezia da hau...Eta bozkariotako...Eta ene bizia agertuz (irriño batekin)...Zerbait erakutsi nahi izan dautzuet (Katti sartzen da). Ah! Katti, nor zen?
- Katti : Polizako bat.
- Joanes : Polizakoa? Ta, zer polizakoa?
- Katti : Ba, hiri zain burua, Lazkano jauna.
- Joanes : Ez dut ezagutzen. Ikusi hahi ote nu?
- Katti : Ba, jauna, baitezpadakoa dela dio.
- Joanes : Jin bedi (Katti ateratzen da) Orai bakezko jujea niz. (bulegora doa eta bazterreko argiak pizten ditu).
Manu baten bila jina bide da.
- Antton : (irri egin-arazi nahiz) Behar-bada Marchel zerbait nahaskerietan sartu delakotz. Hori ez litake ona izanen orai!
- Joanes : Ba hala da.
- Marchel : (kexu eta bizi) Zer erran nahi duzie?
- Antton : Zuk jakin gabeen hitz-eginak dira...Irri egin nahi!
- Marchel : Ni ez niz jostagura.
- Joanes : Zer gertatazen zautzu?
- Marchel : (gogor) Deusik, deusik (Bertze Oporto bat hartzen du. Katti heldu da)
- Katti : Lazkano, hirizaina!
(Ikusliarra sartzen da. Neurritz ez hain larri, bainan holere molde bipilekoa, kostuma grisean. Polliki eta hitzak neurtuz mintzo. Mintzatzerakoan haren begi bipilak zilatu nahi bezala bertzearen barnoa).
- Lazkano : Jaureguiberri jauna?
- Joanes : Ba. Jar zite.

Lazkano : Milesker (Katti, haren boneta eta mantoa harturik badoa).

Joanes : Oporto, xorta bat?

Lazkano : Ez, milesker. Lanerat heldu niz (bulegotik alxia aldaratu-ta jartzen da)

Joanes : Eskualde hotan berria zira naski?

Lazkano : Ba, jauna, berrikitan etorria niz.

Joanes : Aise ohartu niz. Baditut bi urte emanak hiri bazterrean, gero bi urtez auzapez eta orai bakezko juje niz...pentsa beraz hiri huntako herrizainak ontsa ezagutzen ditudanetz. Eta, zu, egia erran, ez niz orhoit nihun ikusi zitudala. (Jartzen da).

Lazkano : Ez Jauna, behin ere.

Joanes : Eta?...Zer nahi zinukete? Manu bat?

Lazkano : Ez, jauna.

Joanes : (Ixtant bat egon-eta, halako kezu-burrumba batekin) Orduan zer?

Lazkano : Berdin bazazu, berri batzu nahi nuzke jakin. Orai duela bi oren eritegian neskato gazte bat hil izan da. Aratsalde huntan ekarria zuten. Pozoia hartu du, erortzerainokoan. Barne guzia erre zakola, gauza segurra.

Marchel : (nahigabeko dardarez) Jesus!

Lazkano : Ba, zer-nahi pairatu du. Ahal zen guzia egin dakote biziaren salbatzeko... Bere burua hil du.

Joanes : Ba, ba, ikaragarria. Bainan den bezala erraiteko, ez dakit zertarat ari ziren.

Lazkano : (Moztuz) Nik horren puskak altxatu ditut...Bere biziko goiti-beheitiak izkirioz utzi ditu eta letra bat ere. Lan eta gora-behera frango erabiltzen duten neskatoko anitzek bezala, izen bat baino gehiago ba zituen. Bere sortzeko izena Maite Ithurria zuen.

Joanes : Maite Iturria!

Lazkano : Ezagutzen ahal zinuen Jaureguiberri jauna.

Joanes : Ez, bainan zer bait gogoratzen ote zautan...Maite Iturria...Nor bait... eta egia erraiteko ez dakit nor izan ditaken.

Lazkano : Zure lantegian arizana zen, ez du anitz urte.

Joanes : Ah! Hori zena? Badakizu, langile frango da hemen, eta frango aldatzen dira.

Lazkano : (xutituz) Maité Iturria hau etzen bertzeak bezalakoa. Bizi zen tokian hatxeman dakot bere potreta bat. Beharbada hura ikusi-ta orhoituko zira hobeki (potreta bat ateratzen du eta badoa Jaureguiberri-ren ganat. Antton xutiturik badoa ikusi nahiz harek ere Joanes-en gibeletik. Marchel berdin bainan bertze aldetik. Haatik ikusliarrak, Joanes-en gibelean jarriz ez ditu uzten ikustera. Harriturik eta hasarreturik gelditzen dira. Joanesek fotoa ikusiz ezagutzen duela aditzerat emaiten du. Ikusliarrak eskutik kentzen dio).

Antton : (ikusliarraren gibeletik doa frango kezu). Ez ahal duzu arrazoin berezirik eni neskatoko horren potretarik ez erakusteko?

Lazkano : Agian ba.

Marchel : Eni ez erakusteko ere ba?

Lazkano : Ba.

Antton : Ez dakit zergatik.

Marchel : Ez eta nik ere (Mahainari jartzen da, Antton haren gibeloko aldera doa)

Lazkano : Ene laneko moldea hola da. (Joanes-eri behatzen dio) Aldian gizon bat, bide bat bertzearen ondotik. Bertzenaz denak nahasten dira (Joanes ohartzen da ikusliarrak behatzen dakola) Orai orhoitzen zitazke nor zen Maité Iturria, ez dea hala, Jaureguiberri jauna ?

Joanes : Ba, ene langile bat. Kanporat eman nuen.

Marchel : Horren gatik hil dia bere burua? Noiz zen aita?

Joanes : Ez harri. Neska horrek utzirik badu jada bi urte. Beha...Guti gora behera, mila bederatzi ehun eta hamargarren urtearen larrazkenean.

Lazkano : Mila bederatzi ehun ta hamargarren urteko agorrilaren azken egunetan.

Joanes : Ba nakien....

Antton : (Hurbilduz) Jaureguiberri, jauna, nahiago zinukea ni joaitea?

Joanes : Antton, galditzen bazira ere ez dut axolarik. Eta ene ustez herrizainari ere berdin zako. Menturaz jadanik elgar ezagutzen zinuten. Mutiko hau Antton Garakotch, Josepe Garakotch jaunaren semea...Garakotch holako...

Lazkano : Antton jauna...

Joanes : Oraixe giniin ohoratzen gure artean ene alabaren ezkontzaz galdatzea.

Lazkano : (Joanes-en gibeletik Antton-en gana doa) Garakotch jauna, Maritohu Jaureguiberri andereñoarekin ezkontzen da...

Antton : (irriño batekin) Hala uste dut.

Lazkano : Orduan nahiago dut geldi ziten.

Antton : Ederki.

Joanes : (Erre aire batean) Dakidanaz ez da deus gertakari huntan ixiltzekorik eta agertzeko on ez denik. Alabainan gauza argia ahal da, orai diela hemeretzi hilabete, ja bi urte, hemendik joan neskatoko horren heriotzarekin ez dutala nik ikustekorik. Ez dea egia, hirizaina?

Lazkano : Barkatu, bainan ez niz arras hortako.

Joanes : Zeren gatik?

Lazkano : Orduan gertatu zena, gero gertatu denaren iturburu izan baititake. Eta orobat gero gertatu denak heriotzerat ereman ezazken.

Joanes : Hala hartzen baduzu...Bainan halere: Noizbait gure-kilako zerbait izan duen bakotzarekin, ondoan gertatu beharraz kondu eman behar baginu... hauxe da lana?...

Lazkano : Ba, eta lan baitezpadakoa.

Joanes : Eta gaur...holako konduak eman behar!...

Marchel : Eta, zuk berriki erraiten zinuen bezala, bakotchak bereari behatu behar du!...

Joanes : (xutituz) Utz dezagun orai hori.

Lazkano : Zer erran nahi zinuen?

Joanes : Deus ez. Zu jin aitzin, mutileri manu batzu eman dazkotet. Segi dezagun... neskato huntaz, Maité Iturria, orai ontsa orhoitzen niz. Arras propia zen, arras pollita...baserrian hazia uste dutanaz...langile ona...(bulegoaren aitzinean jartzen da) eta bertzalde nago langile-buruak erran zautala neskato-alde baten buru jartzekotan zagola. Bainan agorril hartan arras nahasiak eta harrotuak izan ziren beren greva edo lan-uztetarik. Jornal hobeia galdegin behar zutela egin zuten. Beren irabazia:
: gure lantegietan irabazten dena: eta
Ezetz erran nakoten, alabainan.

Lazkano: Zeren gatik?

Joanes : Zeren gatik, diozu?

Lazkano: Ba, zeren gatik erran zinuen ezetz?

Joanes : Behazu, jauna, ene lantegia nola derabilatan jakitea ez da zuri dagokizun lana.

Lazkano: Beditake ezetz.

Joanes : Zure solasek izitzen nute.

Lazkano: Zuk galde bat egin dautazu ta...

Joanes :Bainan zuk aitzinean, behar etzizuñ bertze bat egina zinauten.

Lazkano: Ene lana ahal da galde egitea.

Joanes : Ba, eta enea ahalik eta merkena erostea. Eta lan-saria goititu banu, gauzaren saria ehunarentzat hamabiez nunbait-han goitituko zen. Untsa zautzia hori? Hori ezin asmatuzkoa zelakotz eza eman nakoten. Bertze lantegietan bezalako journalak emaiten ginitiin, eta kontent etzena joan zadila bertze leku batetara lanera. "Bakotxa libro da gure lurretan", nakoteñ erran.

Marchel: Eatik, batek bertze leku bat ezin hatxeman badu?

Lazkano: Egia.

Joanes : Zaude ixilik. Orduan lantegira etzinen zu jiten ere. Lanik ez egin nahiz gelditu ziren. Etziren anitz denbora egon ez.

Antton : Greba hortarik landa, chuchen baniz, pilik gabe zitazken denak.

Joanes : Ba, hala ziren, Antton. Horren gatik hamabortz egunik barne bururatu zen dena. Gauza garratza. Hiru aitzindari kanpo ezarri-ta gainerateko guziak hartu gintuen berriz, lehenago bezala. Nihaur joan nintzan, hiru hoieri leku ziten erraitera. Eta Maité Iturria hiru hoietarik bat zen. Sobera mintzatu zen...Bertzek bezala, harek ere kanpoa irabazi zuen.

Antton : Bertzerik zer egin zinezaken ba.

Marchel: Berriz har. Ene iduriko chantza makur bat zen.

Joanes : Zozokeriak. Artetan lepotik hartzen ez baditugu, ilargia galdeginen dautzute azkenean.

Antton : Egia hori!

Lazkano: Bainan beti-re, hobe da ilargia galdetzea, ilargia eskuratu beharrez ibiltzea baino.

Joanes : Izena nola duzu?

Lazkano: Lazkano (ke-xiloaren aitzinean, deneri bizkarrez).

- Joanes : Ontsa ote zabilta Robert hirizainen buruzagiarekin?
- Lazkano: Bakan ikusten dut.
- Joanes : Hunen jakitea ontsa hartuko ahal dautazu: lagun zaharra dut. Jokoan frango-tan elgarrekin jokatzeko gira.
- Lazkano: (motz) Ni ez niz jokoan artzen.
- Joanes : Ez nuen erran nahi ibiltzen zinela.
- Marchel: Maité Iturria hortaz...Zuhaurk diozu langile ona zela. Nik berriz ere hartuko nuen.
- Joanes : Ez baduzu gehiago adimendurik, etzira sekulan on izanen ez hartzeko, ez igortzeko! Ikastegietan erakutsi ez badauzate ere, zure buruaren jabe izaiteko ordu zinuka!
- Marchel: (murriz) Ez dut uste poliza-gizoneri hoinbertze erran behar zakoten.
- Joanes : Poliza-gizona, bertze erraitekorik ez dugu. Neska hori igorri nuen eta joan zen. Gero gertatu zitzakonaren berririk ote duzu? Neska trixte, galdu bat bilakatu orobat?
- Lazkano: Ez, egia erraiteko, etzen halakotu (Maritchu sartzen da azken hitzak entzunez).
- Maritchu: (Arin) Zer galdu dela? (ikuslierra han dela ohartzen da). Oh! Barkatu. Ez nakien...Amak daut erran hea zer ari zirezten ikusteko gelarat joan gabe.
- Joanes : Minota bat barne han gira. Bururatzen ari gira.
- Lazkano: Ez dut uste.
- Joanes : Dena erran dautzut.
- Maritchu: Bainan zertaz ari zirezte?
- Joanes : (xutituz hurbiltzen zako). Zuretzat ez du muntarik. Zoazi amaren ganat.
- Lazkano: Ez, zaude, Andere Jaureguiberri.
- Joanes : (Hasare) Behazu, poliza-jauna! Etzaut josteta hau gustatzen eta hola segitzen baduzu zure aitzindarietara joanen niz. Ene alabari holako odol gairtoen egin-araztea zuzenik ez duzu.
- Maritchu: Zer odol-gairto? Zer gertatzen da?
- Lazkano : Polizakoa niz. Egun aratsaldean neskatxa batek bere burua pozoindatu du, eta eritegian hil da, hiru oren ezin hilez egon ondoan.
- Maritchu: Gaixoa. Eta zer kariaz?
- Lazkano : Etzezaken gehiago bizi hau jasan eta horrek hortaratu du.
- Joanes : (Bulegoaren aitzinean jartzen da). Ba, bainan ez erran berriz nik lantegitik kanpo ezarri nuelakotz egin duela holakorik.
- Marchel : Hori izan zen naski hastapena.
- Maritchu: Kanpo ezarri baitzinen, aita?
- Joanes : Orai duela bi urte! (Maritchu mahainean jartzen da) Lantegi guzia erdi-nahasirik itzi zautan. Hea nork erranen dautan arrazoinik ez nuela?
- Antton : Egia! (Mahain aldera doa) Guk hori bera eginen ginuen. Etzazula holako arpegia planta, Maritchu.

Maritchu: Bihotza jo daut neska horri gertatuak...Gaurko gauean holako zorionean ginelarik. (ikusliarrari). Hobeko zen ez bazinaut holakorik erran...Gaztea zena?

Lazkano : Ba (ezker aldera doa polliki) Hogoi ta lau urte.

Maritchu: Pollita?

Lazkano : (Harengana alderatuz). Gaur aratsaldean ikusi dutalarik ez, bainan lehen ba...arras pollita.

Joanes : Orai aski, jauna.

Antton : Ez dut ikusten norat ari ziren. Jakin behar dena da heian zer egin zuen lantegitik atera-ta.

Joanes : Hori da nik ere erran nahi nuena.

Antton : Eta guk hortan ezin lagunt, deus ez baitakigu.

Lazkano : Ez ote? (Antton-i behatzen dako, gero Marchel-eri, azkenean Maritchu-ri, gero mahain ondora doa).

Joanes : Erran nahi ote duzu horietarik batek noska hartaz zerbait badakiila?

Lazkano : Ba.

Joanes : Beraz etzira bakarrik enekin mintzatera jina!

Lazkano : Ez! (Bertze lanek bahako harritu eta galdekariak botatzen dituzte elgarri. Joanes xutitzen da).

Joanes : (Mintzatzeko doinua kanbiatuz) Ontsa da. Jakin banu, ez nauzkitzun erran guziak erranen, ez-eta zure buruzagiari heltzerik ere aipatuko. Zure ofiziko lana zelakotz, lan huntarik zerbait irabazi atera behar zinuela uste ukan dut. Orai entzun dutanak dena bertzelakutzen du. Segur zirez zuk aipatu gauzak zuk erran bezala direla?

Lazkano : Batzu ba.

Joanes : Ez dut uste anitz munta dutela.

Lazkano : Neskatxa hil da.

Maritchu: Zer erran nahi duzu "hil da" erranez. Gure hobenez balitz bezala ari zira.

Joanes : Barkatu, Maritchu. Zer iduritzen zauzu. Zu-ta ni biak mintzatuko gira hortaz.

Maritchu: Nolaz? Zuk ez bide duzu ikustekorik, gutarik bat denaz geroz...

Joanes : Zuhur eta zuzen nahi dut mintza zizten.

Antton : Nik ez deus erraitekorik. Maité Iturria ez dut ezagutu.

Marchel : Ez eta nik ere.!

Maritchu: Nola erran dute? Maité Iturria? (Antton-ek baietz erraiten dako). Lehen aldia dut aditzen dutala.

Antton : Zer zautzu hirizain jauna?

Lazkano : Beti berdin. Erran dut lehenago ere, bertze askok bezala, neska horrek ere izena, behin baino gehiagotan aldatu duela. Jaureguiberri jaunak lantegitik igorri zuelarik, hogoi-ta zituelakotz, Maité Iturria zen. Geroizenez kanbiatu zen! Eneatu dudarik gabe harekin.

Marchel : Etzuen gaizki egin.

Joanes : (Bizkarra, edo espalda (?) altxatzon du). Gero zer egin zuen ba ote dakizu?

Lazkano : Bi ilabete egon zen lanik gabe. Burrasorik etzuen. Jaureguiberri-ren lantegiak emaiten zakon jornalarekin etzuen abantzu haundirik. Bi ilabete horien buruan, dirurik gabe, familiarik gabe, lagunik gabe, ostatu txar batera bilduz zagon, goseak erdi hila, zer-nahitara prest.

Maritchu: Eta nolaz ez? Dohakabea!

Lazkano : Neska frango badaude gure eskualde huntako hirietan holako bizia deramatenak, Maritchu andereñoa. Holakorik ez balitz, lantegiek ez lakikete norat joan langile-keta. Galdegizu zure aitari.

Maritchu: Bainan neskatoko hoik ez dira laneko gauza batzu. Jendeak dira hoik ere.

Lazkano : Ez! (bertze lauck behako harritu eta galdekariak botatzen dituzte elgarri. Joanes xutitzen da).

Joanes : (mintzatzeko doinua kanbiatuz) Ontsa da. Jakin banu, ez naukitzun erran guziak erranen, ez-eta zure buruzagiari heltzerik ere aipatuko. Zure ofizioko lana zelakotz, lan huntarik zerbait irabazi atera behar zinuela uste ukan dut. Orai entzun dutanak dena bertzelakatzen du. Segur zirea zuk aipatu gauzak zuk erran bezela direla?

Lazkano : Batzu ba.

Joanes : Ez dut uste anitz munta dutela.

Lazkano : Neskatxa hil da.

Maritchu: Zer erran nahi duzu "hil da" erranez. Gure hobenez balitz bezala ari zira.

Joanes : Barkatu, Maritchu. Zer iduritzen zauzu. Zu-ta ni biak mintzatzeko gira hortaz.

Maritchu: Nolaz? Zuk ez bide duzu ikustekorik, gutarik bat denaz geroz...

Joanes : Zuhur eta zuzen nahi dut mintza zizten.

Antton : Nik ez dut deus erraitekorik. Maité Iturria ez dut ezagutu.

Marchel : Ez eta nik ere.

Joanes : Nunbait zerbait bide zen.

Lazkano : Huna. Jakin zuen erostun batek...erran zuela, kanpo ezartzen zutela.

Maritchu: Noizkoa da hori?

Lazkano : Jazko urtarrilaren ondarrekoa.

Maritchu: Nola?...Nolakoa zen neska?

Lazkano : Zato. (Aterat doa) Haren potreta erakutsiko dautzut. (Maritchu hurbiltzen da. Ikuslierrak fotoa Maritchu-ri erakusten dako. Honek berehala ezagutzen du eta karrasia bat egiten du. Hipaka atea ideki-ta joaiten da. Ikuslierra potreta gorde-ta Maritchu joan aldera beha gelditzen da. Bertzeak elgarri beha harriturik).

Joanes : Zer gertatzen zaku? (Antton eta Marchel ikusliarraren gana doatzi).

Marchel : Ezagutu du naski (Ikuslierrak baietz dio)

Joanes : Zeren gatik eman dakozu holako izialdura?

Lazkano - Bera da holakatu.

Joanes : Bainan...Zeren gatik? Zeren gatik?

Lazkano : Hori nuke jakin nahi.

Joanes : Oraino ere? On bazautzu, nik lehenago jakin behar dut.

Antton : Nahi duzu laguntzea?

Joanes : Ez (atera joanez) Utz nezazu. Emazteari ere behar dakot erran zer gertatzen den. Phesta ttipi baten ohoratzen ari ginen zu jin zirenean...eta dena xahutu daukazu...

Lazkano : Hori bera nuen gogoan eritegian, Maité Iturria-ren gorputzari begiratur. Hainbertze amets ederrez bete bizia, eta norbaitek xahutu.

(Joanesek ihardetsi-nahi batekin behatzen dako, bainan hitzik erran gabe ateratzen da, atea zanpez hetsiz. Antton eta Marchel-ek behako grifatsuak dabilzate batek bertzeari. Marchel lehen mailean jartzen da)

Antton : Potreta hori ikusi nahi nuke, jauna.

Lazkano : Behar denean ikusiko duzu.

Antton : Bainan...

Lazkano : (Moztuz) Lehen ere errana dut, Garakotch jauna. Bide baten ondotik bertzea. Bertzenaz denak mintzatuko gira eta nehorik ez du konprenituko zer ari giren.

Marchel : (Bat-batean jauziz) Orain asea niz komedia huntaz!

Lazkano : Ah ba?

Marchel : (Koxu) Barkatu bainan...sobera erran dut...manpaña hori ere...buruan min dut...Hemen pitsik ez egiten eta...menturaz hobeko dut oherat joaitea (badoa).

Lazkano : Baditake laster jeiki beharko ziren.

Antton : Koropiloaren barreatzeko?

Lazkano : Ene lana errexten badautazue, nik zuen errextuko dut.

Antton : Bainan gizon zuzenak gira, eta ez gaizkiegileak.

Lazkano : Frangotan bien artea ez da uste bezain handia. Nik egin behar-ta, frangotan ez nakike nun ezar bien arteko zedarria.

Antton : Bainan, uruski, ez da lan hori zurea.

Lazkano : Ez, egiaz bainan bertze gauza batzu ba. Gauzen argitaratzeko orain dabilagun lan hau ba (Maritchu sartzen da, nigar egin duela ageri du) Zerbait ba ote duzu erraiteko, Maritchu Jaureguiberri andereñoa?

Maritchu: (laño) Haste-hastetik bazinakien ni nintzala zuk?

Lazkano : Zerbait sumatzen nuen, harek izkribatutik.

Maritchu: Aitari erran dakot...hari deus etzako...bainan aspalditik ez du ene barneak bakerik: eta orain ezin uka nik ere afera hortan...

Lazkano : (Baietz dio) Hura izan zen haren azkeneko lantegi segura. Zeren gatik jakin gabe galdu zuelarik, bertze bizi-molde baten hartzea hobeko zuela egin zuen.

Maritchu: Orduan one falta da?

Lazkano : Ez dena ez. Bertze gauza batzu ere izan ziren. Bainan zu ere hobendun zira, zure aita bezalatsu.

Marchel : Zer egin du Maritchu-k?

Maritchu: "Milwards"-ko buruzagi ondokoari hitz bat erran nakon. Hauxe: langile hurra igortzeko edo ez nintzala ni gehiago harako...eta amari ere erranen nakola etxe hartako konduak gelditzeko.

Lazkano : Eta zergatik hori?

Maritchu: Herra gorrian nintzan.

Lazkano : Zerbait egin zautzukea?

Maritchu: Mirailaren aitzinean, jauntzi bat ontsa nuen al-ez ikusten ari nintzelarik, irriz ikusi nuen buruzagiarekin. Onetik atera ninduen...bainan ordukotz ere minbera nintzan.

Lazkano : Orduko hartan etzintuena berak kexarazia?

Maritchu: Ez, nihaur nintzan hobendun. (Bet-betan) Antton ez du balio hola behatzea. Egia erran nahi nuke. Zuk ere egin dukezu ba noizbait, gauza urrikitzeko bat.

Antton : (ustegabetua) Ez dauzut behinere ezetzik erran bainan ez dakit...

Lazkano : Gero mintzatuko zirezte. Zer gertatu zitzauzun?

Maritchu: Arropa baten erostera joana nintzan. Ene gostura nahi nuen...gure amari etzitzakon ontsa iduritzen, lantegiko buruzagiari ere ez. Bainan ni neureari. Jauntzi nuenean ikusi nuen etzitzaula ontsa heldu: tuntuna bat egiten nuen. Neska horrek ekarri zuen josletik soinekoa eta han buru egiten zue-nak, Harris andereak zerbait galdegin-eta, soinekoa aitzinean ezarri bai-zik etzuen, jauntzi balu bezala. Arras ontsa gelditzen zitzakon. Gainera, biziki pollita zen, ile leguna eta begi urdin xoragarriak...Horrek zituen denak makhurtu. Soinekoa gaizki heldu zitzautala ohartu nintzalarik, ikusi nintuen irriz zaudela. "Ah zer mamua" ziotela naukan. Errabia gorrian jarri nintzan eta (nigarrez hasterainokoan...) nola erran gero gertatu zena? Halako itzuzkeria! Ez nuen holakorik egingogo...bainan pollitegia zen, ne-horen beldurrik gabe zagon; ez nezoken barka.

Lazkano : Hitz batez erraiteko, jelosia...

Maritchu: Ba.

Lazkano : Erosten handi bat eta gizon handi baten alaba izaitiak emaiten zautzun in-darrarekin mendekatu zinen, batere bere hobenik gabe omere txarrean ezarri zintuen neskatxa hartaz.

Maritchu: Bainan ordion nork erran holako ondorioak izan zezakela lan horrek? Orai ba, zerbait egiten ahal banu!

Lazkano : Berantegi.

Marchel : Hil dela pentsatzeak ere...

Maritchu: Zaude ixilik, Marchel! Badakit...badakit. Behin bakarrik egin dut holako lana eta ez dut berriz eginen. Ohartua niz "Milwards"-en etxean ez nizala ontsa ikusia. Egun arats-aldean berean frogatua dut...Orai orhoituko dira eta...Ez dut gehiago harat joaitearik! Zergatik gertatu baita ere holakoa!

Lazkano : Nik ere galde bera nuen gogoan, gorputz hilaren aitzinean. Eta hauxe egin dut: entsaia giten zilatzeraz zergatik gertatu den. Horren gatik etorri niz gauza hori ontsa argitaratu beharrez (jartzen da) Maité Iturriak galdu zuen lan-tokia Jaureguiberri-ren lantegian jornal hobe batentzat greban

.../...

plantatu zelakotz; bertze lantegi batean hasi zen ez dakit zer izenekin handik alde egin behar ukan zuen zure omere txarra zela medio. Gero bertze lanpide baten hartzera behartu zen: hortako, izena aldatu, hor hartu zuen izena orai zuzen badakit: Luicha Mendiri.

Antton : (Harritua) Nola?

Lazkano : Luicha Mendiri (Antton xutitu-ta whisky hartzera doa) Nun da zure aita? Maritchu andereñoa?

Maritchu: Gela tiipira joana, zer gertatu den amari erraitera. Marchel, lagunt zazu (Marchel-ek xutitu-ta atea idakitzen du. Ikuslierra handik doa Marchele-kin. Maritchu eta Antton-ek behatzen dakote gibeletik) (Antton harat eta hunat bere baitan sartua) Zer erran behar dautazu?

Antton : Zer erran?

Maritchu: Nola ta nola ezagutu zinuen neska hori? Maité Iturria hori?

Antton : Nik?

Maritchu: Nahiago baduzu Luicha Mendiri. Berdin da.

Antton : Nundik ezagutu behar nuen nik?

Maritchu: Etzazula gogor egin. Denbora guti dugu. Bertze izen hori erran dueneko zure burua saldu duzu.

Antton : Ba ezagutu dut. Ez dezagun gehiago aipa.

Maritchu: Segurki aipatuko baitugu.

Antton : Beha...

Maritchu: Ez orai ez. Ontsa ezagutzen zinuen neska hori. Bertzela etzinen holako arpegian jarriko. Noiz ezagutu duzu? (Antton ixilik jartzen da) Milwards-etik atara-ta gero poliza-gizonak erran duenaz izena aldatu-ta bertze lanpide berri hori hartu zuenean. Ikusten ahal zinuen joan den primaderan lan anitz zinuela, ene gana jiteko astirik hatxemaiten etzinuen hartan? (Antton-ek ez du ihardesten, berari behatzen bakarrik) Ba, ba, orduan zen...(xutituz, emeki-emeki ezkerreko aldera doa)

Antton : Gaixo Maritchu...Bainan ordukotz fini zen. Ja sei ilabete bazuen haren berri-rik ez nuela. Harek bere buruaren hiltzearekin ez dut nik deus ikustekorik.

Maritchu: Nik ere hori bera uste nuen duela oren-erdi bat.

Antton : Hala da-ta. Guk biek ez dugu hobenik. Horren gatik, erraiten dautzut, ez erran hitzik polizari.

Maritchu: Ez zurerik, ez neskatx harenik.

Antton : Ba, gogor egin behar dakogu (Maritchu irri egiten du moxoturik bezala. Mahainaren aitzineko aldetik pasatu-ta kaderaren aitzineko hegian belhaunikatzen da)

Maritchu: Itsuturik zaude. Berdin badaki dena...Ba daki! Eta ikaratzen nu pentsatzeak harek dakien guzia guk ez dakigula...Ikusiko dugu (kasik nausitasun batekin bezala behatzen dako. Antton frango joa da. Polliki, polliki atea idakitzen da eta ikuslierra haldu da bati eta bertzeari behatuz...Antton chutitzen da)

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
XX Bigarren Gertaldia XX
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

(Aitzineko joka-leku bera. Aitzineko jokaldia hein berean hasten da. Atea zabalik utziz, ikusliarra poxi bat aitzinatzen da.)

- Lazkano : (Antton-i) Eta?
- Maritchu : (irri grifatsua bat eginez ke-xiloko alderat doa). Ikusten duzu? Nik orai berean errana!
- Lazkano : Zer erran dakozu? (hetsiz)
- Antton : (bortitz) Jaureguiberri andereñoari etzinioko gelderik egin behar. Arras egun txarra iragan du. Gure hitzen eguna ginuen ohoratzen eta orai ageri ahal du arrunt joana dela.
- Maritchu : Ments batendako naukazia?
- Lazkano / Mentsa baitzira?
- Maritchu : Ba, erran ere ditake.
- Lazkano : Ontsa da. Etzitut hemen egon arazi nahi.
- Maritchu : Bainan ez da oraino fini?
- Lazkano : Ez.
- Maritchu : Ikusten duzu. Orduan ni hemen gelditzen niz.
- Antton : Zertako? Eta zuretzat ezin jasanya bada ere?
- Lazkano : Eta uste duzua neskato gazter ezin jasanak gorde behar zaizkotela?
- Antton : Ahal bada ba.
- Lazkano : Nik badakit nohorik lagundu izan ez duen bat.
- Antton : Hara! Bahakien nosat ari zen.
- Maritchu : Ba! Huts makurragorik oz bazautzu agertzen!
- Antton : Zerendako nahi duzu baitezpada entzun min eginen dautzun gauza?
- Maritchu : Jada min egin dautan baino gehiago baia? Bertzalde, izan ditake hola hobe den...
- Antton : Ah! konprenitzen dut.
- Maritchu : Zer konprenitzen?
- Antton : Zuk zure kurutzea jasan duzula-ta, ikusi nahi bertzek ere nola jasanen duten?
- Maritchu : Holakoa naukazua? Oraino aski goiz ohartu bainiz!
- Antton : Ez nuen hori erran nahi.
- Maritchu : Ez! Eta etzinuen erranen ere, ene axolarik bazinu. Ene berri badakizu: nola neska hura Milwards-etik leku-arazi nuen. Eta orai segur niz jeloskor batendako naukazula.
- Antton : Bainan ez dut ez erran, ez-eta aipatu ere holakorik.
- Maritchu : Beraz zer erran nahi zinuenez "Bertzek ere nola jasanen duten"? (jartzen da). Ez nuen sekula erranen...
- Antton : Bainan Maritchu!...

- Maritchu : Ez nuen segurki usteko hortan ginela.
- Lazkano : Barkatu Jaurehuiberri andereñoa. (Antton-i) Huna ene iduriko zendako egon nahi duen heren. Zure emazte-gaiak orai du negurtzen noradinoko txarke-riez joa izan den holako oinazetan hil den neskatza gaixoa. (Maritchu-ren asperena). Hobendun aurkitzen du bere burua. Hemendik joaiten balitz eta bertzenik ez aditzen, uste luke bera dela hobendun bakarra...bere gain ikus lezazke hoben guziak...gaur...bihar...eta...
- Maritchu : Badakit erasia minkorrenak merexi ditudala eta nehork uste baino gehiago min egiten dautate...bainan ez dezaket sinets, ez dut nahi sinetsi ni nizala hobendun bakarra. Hori ezi!
- Lazkano : Gu ere jar giten partalier. Ezinbertzean gu ere ager giten hobendun.
- Maritchu : (xutituz) Ba, zuk badakizu arras ontsa. Nik ez badiot konpreni ere.
- Lazkano : Ez ahal da harritzeko.
- Maritchu : Nik ez dakit poliza-gizonen berri. Bainan orai arte ezagutu ditudanak etziren zu bezalakoak.
- Lazkano : Hanbat gaixto!
- Maritchu : Ba gaixto eta izigarri (Jakin-nahi batean behatzen dako eta bere buruarekin mintzatuz). Ez, bertzetan ez dut zu bezalakorik ezagutu, hala behar-ko bazuten ere. Zu, iduritzen zaut lehen aldikotz egiazko bat zirela heren agertua.
- Maritchu : Erradazu gezurrean nizala!
- Lazkano : Hala iduritzen zautzu? (Maritchu-k egia zilatu beharrez duda-mudaka behatzen dako. Bitartean Jaureguiberri andrea agertzen da, deliberatuki mintzo, iduri denen xuxentzera heldu. Maritchu ohartzen zako.)
- Terecha : Jaureguiberri-ren emaztea niz. Ene gizonak erran daut zertara etorria ziren. Gure atsegina litake zure nahien betetzea, bainan arras guti dezakegu zure laguntzeko.
- Maritchu : Ez, ama! Alo!
- Terecha : (ez dakienaren itxurak hartuz) Zer gertatzen da, Maritchu?
- Maritchu : Gaizki ari zira. Badakit orai errana gero damutuko zautzula.
- Terecha : Ez dakit zeren erraiten ari ziren, Maritchu!
- Maritchu : Denak hola ginen hastean: bapo eta uste hau-zer-da!...Hori galde egiten hasi arte.
- Terecha : Arras ikaratua duzu zuk ene alaba!
- Lazkano : Gazter aise sartzen zakote beldurra (Terecha eta biak, betan algarri beha jartzen dira) (Gero Maritchu)
- Terecha : Begia eroria duzu, haurra. Oherat joaitea hobe zinuke...hok guziak ahantzi artio.
- Maritchu : Ez, ez niz joanen. Maité Iturria-k bere burua ene gatik hil duen, ba ala ez, jakin artio.
- Terecha : Jakin-nahi kaltekorra da hori.
- Maritchu : Ez.
- Terecha : Etzadazula ezetzik erran. Gainera, Iturria horrek egin duena, zeren gatik egin duen ez dugu sekulan asmatuko...Emazte batzuik...

- Maritchu : Ama! Ez...ez erran...zuregatik, guregatik ez erran...
- Terecha : (Hasarretua) Zer ez dut erran behar, Maritchu?
- Maritchu : Gure...eta neskatx horren artean etzazula hesirik ezar. Ezartzen baduzu, polizierrak kenduko du eta orduan hanbat gaixto zuretzat.
- Terecha : Ez dut konprenitzen. Eta zuk?
- Lazkano : Nik ba! Eta arrazoin du.
- Terecha : (kezu) Nola erran duzu?
- Lazkano : Nik baietz, konprenitzen duala eta arrazoin duela.
- Terecha : Ez diot onets zure errana. (Maritchuri) Maritchu, zer gertatu zautzu?
- Maritchu : Zer dakit nik? Baditake ez diozun onets erran hori, bainan ixil zite, gehiago luzatu gabe.
- Terecha : Zer uste duzu, beldur nizala polizierrari gaitzitzekoan erraiteko?
- Lazkano : Ez, ez, eni etzaut sekula gaitzitzen.
- Terecha : On da jakitea. Hortako arrazoin aski bazinukela erran gogo nauzun.
- Lazkano : Uzten ahal ditutzu bazter gaitzitze eta holakoak.
- Antton : Hobe.
- Terecha : Barkatu! Polizierrekin ni nintzan mintzo (patxadan) Zure berri galdegin dautzutela ohartzen niz. Bainan orai arte, lan hortan gaizki jokatu zirela ere eta kalte egiteko gisan...Badakizu ene senarra, duela bi urte auzapez zela eta oraino ere herrian norbait dela.
- Antton : (Kezu) Andre Jaureguiberri, polizierrak badaki hori. Orai ez dut uste mementoa dela horren aipatzeko.
- Maritchu : Zaude ixilik beraz ama!
- Lazkano : Orai ere arrazoin dutelakoan daude...
- Terecha : (irria bortxatuz) Ah ba?
- Lazkano : (bnti gostuan) Ba. Eta Jaureguiberri jauna?
- Terecha : Berehala etorriko da. Marchel-ekin utzia dut. Zainen gainean baita Marchel
- Lazkano : Zertako da zainen gainean?
- Terecha : Arats huntan anirko edanik dudarik gabe.
- Lazkano : Eta ez dia edateko usaiarik?
- Terecha : Ez. Ba! Oraino haurra da gaixoa!
- Lazkano : Ez hain haurra, ez. Horren adineko batzuik aise edaten dute.
- Maritchu : Marchel-ek bezala.
- Terecha : Maritchu!
- Maritchu : (ximinia aldera doa. Frango fier). Ez dut nik Marchel-en bizi moldea, den baino nahasiago ezarri. Jada hola aski nahasia baita. Bainan ordu du gezurak urruntzeko. Badu bi urte, behar baino gehiago edaten duela.
- Terecha : (harritua) Ez da egia! Antton zuk ezagutzen duzu. Badakizu hori ez dela egia (Antton dudan)
- Lazkano : Zuri zer zautzu, Jauna?

- Antton : (Jaureguiberri andreari) Barkatu bainan...egia da. Etxe huntarik kanpo ez dut ikusi, bainan...ohartu niz behar baino gehiago edaten duela.
- Terecha : (xutituz) Eta memento hau duzu zuk hautatzen horren Maritchu-ri erraiteko?
- Maritchu: Hori erran nahi nauzun...Gauzak...gero-ta nahasiago jartzen ari dira.
- Terecha : Bainan ez zure faltaz. Polizierraren faltaz ba!
- Maritchu: Etzireia ohartua oraino ez dela zurekin hasia?
- Terecha : (Duda zerbaiten ondotik) Edozoin galderi ihardetsiko dakot. Bainan...Iturria izeneko hortaz...nik "ha" ez dakit...
- Lazkano : Ikusiko dugu, andre Jaureguiberri. (Jaureguiberri sartzen da atea hetsiz)
- Joanes : Egin ahalak egin tut Marchel oherat bildu beharrez bainan denak debalde. Zuk ez oherat jaiteko erran omen dakozu, egia dea?
- Lazkano : Ea.
- Joanes : Zerendako?
- Lazkano : Gero galdé batzu egin behar baitazkot.
- Joanes : Etzitut konprenitzen. Bainan hori beharrezkoa balin bada, nahiago nuke orai berean egitea. Geldegin behar dazkotzunak galdegin eta doala oherat.
- Lazkano : Beha egon beharko du.
- Joanes : Adi zazu, Jauna...
- Lazkano : (moztuz) Bere aldiaren beha dagola.
- Maritchu: (Jarriz, Jaureguiberri andreari) Ikusten duzua?
- Terecha : Ez, ez dut ikusten. Eta zu, zaude ixilik Maritchu!
- Joanes : Jadanik errana dautzut, jauna, zure mintzatzeko moldea etzautala gustatzen. Eta etzitut solas hotan anitz lagunduko.
- Lazkano : Ez dut nehoren laguntza beharrik.
- Maritchu: (Bitxi aire batean) Ez, hori izanen duzu laguntzale. Ez izan beldurrik.
- Joanes : (bere andreari) Zer gertatzen zako Maritchuri?
- Terecha : Arras akitua da. Eta ez joan nahi! (Ikuslierrari) Fini zazu lehen-bain-lehen...Zer nahi duzu?
- Lazkano : (Ezker aldera doa gostu-gostuan) Jaz, urtarrilaren ondarrean, Jaureguiberri andereñoak pusatu zituen Milwards lantegikoak, Maité Iturria-ren despeitzerat. Eta ordu arte langile ona izana zena, Maité Iturria, bertzelako urratsetarat erori zen. Luicha Mendiri bilakatu zen. (Bet-betan Antton-i) Antton jauna, noiz ezagutu zinuen Maité ? (Jaureguiberri emazteak harriturik gelditzen dira)
- Antton : Nundik atera duzu ezagutzen nuela?
- Maritchu: Debaldetan ari zira, Antton.
- Lazkano : Luicha Mendiri aipatu dutalarik, zuhaur galdu zira.
- Maritchu: (Mahain aldera joanez, saminki). Hara froga, ezagutzen zinuela.
- Lazkano : Banakien. Noiz ezagutua zinuen??

- Antton : (Jartzen da) Jaz, martxoan edo hola ikusi nuen lehen aldikotz "Palace"-ko "Kafean"...Music Hall Palace-koa zen hori.
- Maritchu: Bixtan-da ba etzela "Buckingham Palace"-koa.
- Antton : Milesker segur. Ikusten dut ontsasko lagunduko nuzula. Zuk zurea erran-eta...bertzenaz ez duzula atsegin!...Hortako gitutzia ez uzten gauzen al-dian bat agertzea?
- Maritchu: Ez bainan...hauxe dut jakin-nahia: zer gertatzen zakon bere maitearen ikustera joaiteko astirik ez duen gizon gazteari. Hori jakin gabe gelditu. Ez...
- Lazkano : Ixo. (Antton-en ondoan jarriz) Aitzina Antton jauna. "Palace Music Hall"-eko kafean ginen.
- Antton : Arras lanez asean nintzan arats batez harat jo nuen.
- Terecha : Zer hiriko fama txarreko etxe baterat?
- Joanes : Bego, bego hortan!
- Lazkano : Segi aitzina!
- Terecha : Maritchuk hobe luke holakorik ez entzutea.
- Maritchu: Ahanzten duzue naski ni holakoetan ibili denaren emazte-geia nizala! Antton (hunen jar-lekuaren gibelean jartzen da) zu hango egoiliarretan ibili?
- Antton : Baitezpada jakin nahia zirenaz geroz, hobe segur hobe!
- Lazkano : Segi zazu Antton jauna. Zer gertatu zen gero?
- Antton : Han gaindi iragaitean, gohainditu ninduten halako kreaturak. Bainan neska bat ikusi nuen bertzeak ez bezalakoa: osoki pollita zen, bere ile beltz, begi urdin handiekin...(Mozten du) Jaun zerukoa!
- Lazkano : Zer duzu?
- Antton : Barkatu...hala da...hila da-ta!
- Lazkano : (Gogor) Ba hila da.
- Maritchu: Eta denon artean hil dugu.
- Terecha : (Bizi) Ez erran haurkeriarik, Maritchu.
- Lazkano : Segi zazu.
- Antton : Gaztea zen, ederra, eta ageri zen etzela hura haren lekua: lagun galdu heien artean eta denak gizon tzar biziatu mozkor baten meneko.
- Maritchu: Alabainan, nahiz mundu guziak dakien leku hoiere berri, ene lagun bat halako batetara irriskatu-ta etzen soinekoa urraturik baizik eskapatu.
- Joanes : Maritchu!
- Lazkano : (Antton-i) Aitzina.
- Antton : Laguntza eske bezala behatu zauntan neskatokoak. Ni hurbildu nintzelarik zerbait estakuru pentsatu zakon nausiari, orai ez niz orhoit zer. Gero laguntzeko baimena galdegin nakon neskatokoari, harentzat zerbait egin banezaken. Baietz erran zautan (xutitúz) ezker aldera doa)
- Lazkano : Norat joan zinezten?

- Antton : Hotel batetarat. Ba nakien tenore hartan leku ixila zela hura bi elhe-
ren egiteko.
- Lazkano : Bere berririk eman zauntzuna?
- Antton : Erran zauntan Luicha Mendiri zuela izena. Burrasoak hilak zituela eta ur-
rungoa zela. Hemengo lantegi batean lanean arizana zela, "greva" baten
gatik kanpoa ukan artio. Gero bertze etxe batean...etzauntan erran nun...
gehiagorik ez nuen jakin. Artetik eskapatu zankon etzuela dirurik eta
gosea zagola: janari poxi bat ekar-arazi nuen.
- Lazkano : Eta orduan, haren maitatzen hasi?
- Terecha : Zer derasazu?
- Maritchu: Hori hastetik gauza ageria zen, ama. Segi, Antton, segi. (Joanes mahain
bazterreko alkian jartzten da barnasko, ke-xiloari beha).
- Antton : Bi egunen buruan, elgar berriz ikusi ginuelarik ohartu nintzan, uste ga-
betarik ohartu nintzan den gutieneko sosik gabe zela eta jakin nuen zau-
kan genbera yxar hartarik ere kanpo ezarri nahia zutela. Orduan, orhoitu-
rik sei ilabeterentzat Canadarat joan lagun baten ganbarako gakoak esku-
tan nituela egin ahalak egin nituen han bizi zadin, diru poxi bat ere
emanik. (jartzten da) Hok erranez nahi nuke sinestea ez nindabilala haren
amodioaren ondotik. Hori geroago jin zen. Min emaiten zautan jakiteak de-
lako taberna hartarat itzuliko zela gero. Ez nakon deus ere galdegin.
- Lazkano : Konprenitzen dut. (Harat-hunat ibiliz)
- Maritchu: (Antton-i) Ba, bainan zertako erraiten dazkotzu horri? Eni erraitea aski
zen.
- Antton : Ba, Maritchu, batere ez dakit.
- Maritchu: Nik badakit ba. Berak ateratzen baitauzkitzu.
- Lazkano : Azkenean elgar maitatu zinutena?
- Antton : Alabainan. Hain gazte, hain goxo eta pollita...gainera ni ganako esker
onak ene menekotu ziren. Haren biziko gizonik haundiena ni nintzan, nahit-
ez.
- Lazkano : Bakarrik zagon munduan. Zure adixkidetasuna eman zinakon. Emazteak bere
izaitean du: maitatu beharra.
- Maritchu: Egia haundia.
- Lazkano : Maite zinuena?
- Maritchu: Hori bera galdegin gogo nakon.
- Joanes : (hasarre, xutituz) Ez da hori galdetzen dena.
- Lazkano : Zertako ez? Zu izan zira lehenik neskatx hori lantegitik igorri duzuna.
- Joanes : (ez jakin zer erran) Bertze edozoinek eginen zuena dut egin. Eta zertako
sartu dautazu zuk gauza hoitan ene alaba gazte ta ezkongaiia.
- Lazkano : (Gogor) Zure alaba ez da ilargian bizi. Bainan ko hirian.

- Maritchu : Ba. Eta Milwards duzu. Eta gainera, Antton-en emaztegeia ez da haur bat. Jakiteko eskubidea ahal dut. Maite zinuena?
- Antton : Hastean, bertze edozoinentzat bezain atsegingarri zen enotzat.
- Maritchu : Halere hasi zira egiaren erraiten. Joaiten zinena arats guziz haren ikus-tera?
- Antton : Ez. Lan anitz bainuen...Etzen aitzakia. Lanez ithoa nintzan aldia hartan. Bainan, egia-erran, frangotan ikusi dut.
- Terecha : Egia izigarri horrentzat hoinbertze itzuli!
- Antton : Bertzerik, jauna?
- Lazkano : Ba. Harekilakoak noiz utzi zintuen?
- Antton : Agorrilaren hastean, herriz kanpora joan behar izan nuen; ene egitekoez. Luicha Mendiri oharatu zen gelditu behar ginuela eta joan baino lehen utzi nuen...
- Lazkano : Harrek nola hartu zuen?
- Antton : Nik uste baino hobeki. Bertutetsu izan zen...
- Maritchu : Arras atsegingarri zuretzat!
- Antton : Ez. (denbora hartuz) Etzuela iraunen jakina-gatik, nehoiz ez bezalako zoriona izan zuela erran zautan. Etzen hasarretu. Etzautan hitzik ere erran. Hobeko zen zerbait erran balu. Gaur eskerrak emanen nazkon!
- Lazkano : Erran zauntzuna zer xede zuen?
- Antton : Diru poxi baten gutizia bezik etzautan agertu. Hiria uzteko asmutan zen. Egin zuenez al-ez...ez dakit zer egin zuen.
- Lazkano : Bi ilabete egon zen herriz kanpoan, plaia batean.
- Antton : Bakarrika?
- Lazkano : Xede horrekin joan zen...zure orhoitzapena lagun.
- Antton : Nola dakizu hori?
- Lazkano : Bazuen kasota baten heina, izkribuz egina. Hartan hitz hol irakurtzen dira: ihes egin...orhoitzapenez bizi...iraun-arazi. Ezagutu zuen etzuela bertze holakorik izanen. Eta nahi zuen luzatu...
- Antton : (denbora hartuz) Gehiago ez dut ikusi. Hori da erran dezakedan guzia.
- Lazkano : Eta nik jakin nahi nuen guzia ere ba.
- Antton : Hola denaz geroz...eta ene baitan berri den minaren gatik...nahi nuke joan hemendik.
- Lazkano : Norat? Zuharen etxerat?
- Antton : Ez, kanporat...kurritzerat...Etorriko niz, ene beharrik izaiten baduzue.
- Lazkano : Nahi duzun hezala, Antton jauna.
- Maritchu : Ez gehiago jitea erabakitzen baduzu, edo ahanzten balitzaitzu ere, eraztuna eremaita hobeko duzu (Antton-i emaiten dakio).
- Antton : Ontsa da.
- Maritchu : Duela oren-erdi bat baino nahigabe gutiago dut zure gainean. Gezurrean ez baniz, ene begietan oixtian iduritu baino hobea zira. Aitzinean bana-

kien gezurrean ari zinela; oraikoan egia erran duzu. Eta sinesten dut erran daukuzuna: hastean urrikariz lagundu zinuela. Nik ere zinez urri bainuen. Bainen orai zu eta ni ez gira mahain huntan izan giren hek. Ber-ritarik hasi beharko.

- Joanes : Maritchu, ez da zure laguntzeko, bainen orhoit zite...
- Maritchu : Etzitela gure artean sar, aita. Zuk ez konpreniturik ere, Antton-ek bada-ki zer erran nahi dutan.
- Antton : Ba. Badakit zer erran nahi duzun bainen sinets azu gauza bat. Egin aha-lak eginen ditudala berriz jiteko.
- Maritchu : Egin, Antton...
- Antton : Barkatu (Badoa eta jarraikitzeotan Joanes ere badoa ateari buruz eta gaztearen ate harrabotsa aditzearekin, Joanes hartzen da).
- Maritchu : Orai orhoitzen niz ez dakozula hari fotorik erakutsi.
- Lazkano : Etzen baitezpadakoa.
- Terecha : Neskatoke haren potreta ere baituau?
- Lazkano : Ba. Zuk, ba, behar duzu ikusi (mahainaren itzulia egiten du Terecha-ren ondora jiteko).
- Terecha : Ez ditake ez arrazoin berezirik.
- Lazkano : Berdin ez. Bainen, nahiago dut zuk ere ikustea (Terechak mespretxu aire batean behatzen dako kenduz): Ezagutzen duzua?
- Terecha : Ez. Mundik behar nuen ezagutu?
- Lazkano : Ondarrerat, menturaz doi bat desbixtatua zen. Bainen ez dut uste halere hoinbertzetaraino kanbiatu den.
- Terecha : Ez dut pitsik konprenitzen, jauna!
- Lazkano : Ez ote litake hobe erraitea, ez duzula nahi konprenitu, andre Jaureguiberri
- Terecha : Ez dutala konprenitzen erran dautzut.
- Lazkano : Ez da ba hori...egia.
- Terecha : Zer erran nahi duzu?
- Joanes : (onotik ateraturik) Gauza guziek izari bat badute eta enea oraikoan bete da. Barkamendu galdegin beharko dakozu andere Jaureguiberri-ri.
- Lazkano : Zerendako? Ene eginbidea bete dutalakotz?
- Joanes : Behar ez den gisan egin duzulakotz. Herri-gizona niz.
- Lazkano : Herri-gizonak, hartzeak bezala, eginbideak ere badituzte.
- Joanes : Baditake. Haatik ez dut uste ene eginbiden erakustera igorri zituztela.
- Maritchu : Iduriz ez, bainen neure buruarekin hasia niz...
- Terecha : Zer erran nahi duzu zuk berriz?
- Maritchu : Deus erran nahi ez duena hau da: gure egungo afera xuritze trixtea. Bate-re bururik baginu, ez gintazke gisa hortan joka. Jornal on bat galdegin-sari, aitek kanpo ezarri zuen, Antton berriz harekin ibili eta nahi zue-nean utzi. Eta zuk orai, haren potreta ikusi-ta, ez duzu ezagutu nahi. Ez dakit zer kariaz ezagutu behar zinuen, bainen zure begiak salatu daut

ezagutu duzula. Eta zu egian etzirela-ta, zertako behar du barkamendu galdegin polizierak? Denen makurtzen ari zireztela etziztea ohartzen? (Ate harrabotsa kanpoan)

- Joanes : Atea berriz orai.
- Terecha : Antton ditake sartzen.
- Lazkano : Atera ez bada zure semea?
- Joanes : Behar dut ikusi (badoa. Ikuslierrak Terecha andreari):
- Lazkano : Andere Jaureguiberri, zu hiriko "behardunen laguntzeko emazten" obtaren buruzagietarik zira, ez dea hala? (Ez dio erreposturik emaiten).
- Maritchu : Ama! Hobe duzu aitorturik...Hala da, ba, zertako?
- Lazkano : (gostuan harat-hunatka) Diru-beharretan gertatzen diren emazten laguntzeko? Makur niza?
- Terecha : Ez. Batasun hori egin duzu. Eta merezi dutenek ontsa baliatzen dute.
- Lazkano : Orai bi aste, Biltzar nagusia zinuten.
- Terecha : Zuk hala diozu.
- Lazkano : Biltzar-buru zu zinen. Eta beraz zerbait badakizu.
- Terecha : Hala izan-eta ere, zer johan zaitzu zuri?
- Lazkano : Gauza, den bezala erraitea nahi duzu beraz? Joanes farrandan sartu, eta atea hesten du).
- Joanes : Marchel.
- Terecha : Hori mutiko! Orai bederen oherat ahal doa?
- Joanes : Ez dakit...Harek badu bere hetarik egun ere, eta hemen haren beharrik ez izaitekotz...
- Lazkano : Preseski haren beharretan gira eta laster jiten ez bada, haren bilha joan beharko dugu (Jaureguiberri senar-emazteak elgarri beha jartzen dira, dudan).
- Maritchu : Aire poxi baten hartzera joana ditake. Laster etorriko da ba.
- Lazkano : Nik ere hala uste.
- Terecha : Eta zerendako uste duzu?
- Lazkano : Ene galdeari errepostu emanen duzularik jakinen duzu, andere Jaureguiberri.
- Joanes : Zer? Ene emaztearentzat ere baditizua galdeak?
- Lazkano : Ba eta ez arrazoinik gabe. Pentsa! Antton jaunak agorriletik hunat ez ikusia Maité Iturria eta andere Jaureguiberri-k duela bi aste: eta mintzatu ere!
- Maritchu : Ama!
- Joanes : Egia othe da?
- Terecha : (egon ondoan). Ba, egia da. (Maritchu alkirat erortzen da)
- Lazkano : Laguntza eske jin zena Biltzar Nagusirat?
- Terecha : Ba.
- Lazkano : Maité Iturria izenarekin?

- Terecha : Ez, eta Luicha Mendiri izenarekin ere!
- Lazkano : Orduan zer izenekin agertu zen?
- Terecha : Andere Jaureguiberri izenarekin.
- Joanes : Andere Jaureguiberri?
- Terecha : Izigarrikeria horrek nu asaldatu haren kontra.
- Joanes : (Zoko-alderat joanez) Hori kopeta! (Wisky gehiago ateratzen du beretzat).
- Lazkano : Haren kontra orduan asaldatu zinela aitortzen duzua?
- Terecha : Ez othe zen arrazoinik?
- Maritchu : Ama, hila da...Heriotze ikaragarria...
- Terecha : Badakit. Bainan hortan bera da hobendun.
- Lazkano : Biltzar Nagusian zinela kotz errefusatu dakozu laguntza?
- Terecha : Baditake.
- Lazkano : Ba ala ez?
- Terecha : (xutituz, ezker aldera doa) Ba! Haren jukutria ezin nuen jasan. (saminki) Gure aiten izena ber-bera hautatu du, eta gero bururat jina erran. Ene galderi ihardetsiz aitortu du bere senarrak uzteko ixtorinoa gezurra zuela. Anitz penatu gabe jakin dugu egia...edo egiaren zati bat bederen.
- Lazkano : Zer kariaz galdatzen zuen laguntza?
- Terecha : (Eskuinera joanez) Nik erran gabe ere, badakizu arras ontsa.
- Lazkano : Eta ez da ixilpean galdituko, Andre Jaureguiberri.
- Terecha : Ez uste izan izituko nuzula. Ez niz beldur erraiteko zer egin dutan, ez da hemen gordetzekorik. Neskatokoak laguntza eskatu daut. Ontsa da. Bainan behar dugu eskalen berri jakin. Berak erran arrazoinak etzitzazikun onak iduritu. Etziren gauzak garbian...Orduan, ene manutik, laguntza errefusatu dakote. Eta gertatu dena gertaturik ere, ene eginbidea bete dutala fida niz. (Joanesen gana joanez). Horren gatik, nik badut aski erranik eta zuk ez duzu ene sendimendurik hortarik higituko.
- Lazkano : Ba higituko ditut.
- Terecha : Hori ez! Zuk badakizu nik ez dutala makurrik egin.
- Lazkano : Ba dakit zuk egina arras gaizki dela eta horren gatik zure bizi guziko arrangura izanen duzula. Gaur arratsean ospitalean izan bazina, ikusiko zinuen!...
- Maritchu : (zoraturik) Ez, ez! Ez berriz erran! Ikusten dut Zu jinez geroztik eritua niz.
- Lazkano : Beraz, oraikoan bertze gauza bat gogoan har-azu: Maité Iturria haur-beharretan zen.
- Maritchu : (Harriturik) Bainan...beraz.. nolaz hil du bere burua?
- Lazkano : Xakur bat bezala toki guzietarik kasatu dute. Heriotzea zuen azken ihesa, bainan halere azkena.
- Maritchu : Ama...hori bazinakien zuk...
- Lazkano : Bertzela, nolaz jinen zen karitate eske.

- Joanes : Beha...Antton Garakotch jauna etzena izan?
- Lazkano : (jujatzuz) Ez, Antton Garakotchek etzuen hor ikustekorik. Bertzerik baduzuia erraiteko?
- Terecha : Orduan erran dutana: haurraren aita hatxeman zezala. Gertatu denaren hoben guzia harek du.
- Lazkano : Guzia ez. Emazte batek beharrik haundiena duen kenkan hasi da laguntza eske. Eta zuk errefusatu, eta zure laguneri errefusarazi sos bat ere gabe eta etsitua zenari. Eta ez sosik gabe bakarrik: sosik gabe, lagunik gabe, amodiorik gabe eta elhe on bat ere gabe. Haurrak ukan ditutzu zuk: orhoitu behar zinuena...Bainan eskaleari ez- adituarena egin duzu.
- Maritchu : Ama! Bihotz-gogor, idor eta bihotz-gabe izan zira.
- Joanes : Garbitasun osoa agertuko delarik, Terecha, lur-pean sartzeko hobeak izal- nen gira, kasetek den gutienik hedatzen badute.
- Terecha : Aski da. Eta ni hoinbertze hobenen jasaile egin baino lehen, orhoit ziezte ez nuela nik ezarri kanpo...Orduan hasia da dena (ikusliarrari behatuz, mahain ondora joanez, jartzen da. Joanes-ek berdin egiten du). Enea ere ikusi behar da: neskatxa gezurrean frogatu nuen. Eta egia agertzean, jakin nuen, bazakiela aita nor zen: harekin ezkondu nahi ez bazuen, gutienetik hehar zuen bederen diruz mantenatu.
- Lazkano : Berak zer zion?
- Terecha : Ba! Menskeriak!
- Lazkano : Zer menskeria?
- Terecha : Nola-nahikoak izan ziten, ene onetik aterarazi ninduten. Bere burua plan- ta hartan ikusten zuen emazte batendako etziren gisa haren elheak.
- Lazkano : Haren estakuruak joanak dira orai (Joanes-ek zerbait erran nahi du). Utz- kitzu orai arrazoin ahul eta aitzaki hoik. Zer zion berak delako aitaz?
- Terecha : (Beldurturik) Axolagabe...edale...eta...gizonzka bat zela aita. Ezkontza- rik etzitakela aipa ere harekin...Bientzat kaltetan izanen zela...dirua eman zakola bainan gehiagorik etzakola hartu nahi izan.
- Lazkano : Eskaintzen-eta zendako ez hartu?
- Terecha : Tranpakeria bat. Hitz bat ez nakon sinetsi.
- Lazkano : Ez dautzut galdetzen sinetsi zinakon ala ez. Haren errepostua jakin nahi dut nik hitzez hitz.
- Terecha : Mozkorra zen arats batez, mutikoaren erranetik ezagutua zakon sosa etzue- la berea. Hala erran daut.
- Lazkano : Eta?...Nundik ateratzen zuen diru hura?
- Terecha : Ebatsiz omen.
- Lazkano : Orduan gaizki egin dirutik ez nahiz jina zen zure ganat?
- Terecha : Hori ondarrean aitortu du. Senarrak uzteko ixtorioak nik ez nazkola si- nesten erran-eta. Bietarik zoin zen egia nola jakin.
- Lazkano : Bainan egia erran badautzu, mutikoak harena etzen dirutik eman badako, orduan zure ganat jitea ez ote zen, mutiko haren nahaskerietarik urrundu nahiz ibiltzea?

- Terecha : Baditaike. Eni etsigarri iduritu zitzaitan haren manera, eta ez dut urrikirik errefusaturik holakoari.
- Lazkano : Gero gertatuaz orhoituz ere eza?
- Terecha : Neskatzaxa hori...urrikalgarri zaut...bainan ez dut urrikirik.
- Lazkano : Zure ustez nor da hutsean?
- Terecha : Lehenik, bera.
- Maritchu : Aita eta ni, bere lanetik baztertu dugulakotz!
- Terecha : Gero...Etorri denaren aita da hobenduna. Eta neskatxak erra duen bezala, mozkor eta xolagabea balinbada, orduan ta gehiago. Kondenamendu bat behar luke! Nork behar du ihardetsi neskatoko horren azken beltzaz, aita horrek ez bada.
- Lazkano : Bainan bertze hori jakin-ta: diru hura ebatsia zuela...
- Terecha : Hori hola bada, hura jartzen da hobendun bakar. Orduan neskatxak ez gintuen gu hola nahasirik ezarriko. Ez baitzitzaukun eske jinen. Guk errefusatzeko lanik ez orduan...
- Lazkano : Orduan hobendun bakarra...
- Terecha : Segurki! Eta gaztigu garratza merezi duena.
- Maritchu : (amaren ganat iziturik) Ama! Ixil zite ba, ixil!
- Joanes : Maritchu!
- Maritchu : Bainan ez duzueia ikusten?...
- Terecha : (Zorrozki) Gaur etzabiltza ontsa! (Ikuslierrari) Zure egitekoa da mutiko horren bilatzea eta, hemen, guzien aitzinean aitor-araztea. Eta ez, hemen, galde zoro batzuekin denbora galtzea!
- Lazkano : Ez lotsa, andere Jaureguiberri, hori da nik egingogo dutana.
- Terecha : (Bitorios bezala) Atsegin hartzen dut. Eta, orai, joan nahiko duzu...
- Lazkano : Ez oraino ez. Ene eginbidea behar dut bethe.
- Maritchu : Bainan, ama, ez baituzu konprenitzen oraino? (Joanes-en gana itzultzen da, haren besogainean arpegia gordez, nigarrez. Burrasoak, beldurturik, elgarri beha jartzen dira)
- Joanes : (Boz dardara batekin) Bainan, Jauna, ez duzu erran nahi...zera...ene semea gauza hortan barne dela?...
- Lazkano : Hala balitz, badakizu zer den egiteko. Jaureguiberriandreak oraixetan errana du.
- Joanes : (eroria) Jainko maitea! Bainan...entzun nezazu...
- Terecha : Ez dut sinesten!...Ez dezaket sinets!...(Alkira erortzen da)
- Maritchu : (Belaunikatuz) Ama!...Hortakotz nahi zindutan ixil arazi.
(Ikuslierrak keinu bat egiten du. Kanpoko atea hesten dute. Ikuslierra berriz ere barnera emaiten duen ateari beha dago. Marchel sartzen da, koloreak zuri eta larri; bertzen begi jakin-nahieri gogor eginez. Amaren karrasia.)

Hirugarren gertaldia
www

(Aitzinekoaren segida. Marchel sartu berria da).

Marchel - Badakizu, dudarik bage?

Lazkano - Ba, badakigu.

Terecha - Ez dezaket sinets, Marchel. Bada hor numbait makur zerbait. Ez dakizu zertaz arizan giren.

Maritchu: Damurik, hunek ez dakiela. Neskatokoa galdu duenaren kontra mintzatu da ama. Eta erran du merezi duen gaztigua behar zakola eman, zentza dadin norapait.

Joanes : Bego hortan, Maritchu!

Marchel : Ez dautazu naski eztitasun haundirik erakusten, ama?

Terecha : Nik ez nakien zu zinela...Ezin dut sinetsi...Etzira zu holakoa...Etzira mozkortzen...

Maritchu: Hori mozkortzen dela. Lehen ere erran dautzuet.

Marchel : Jainkoak ordainduko ahal dautzu egiten dautazun zerbitzua.

Maritchu: Aspaldi huntan ixilean naukan. Gaur mintzatu niz, ohartu bainiz denak argitan direla. Ene mihitik jakin dezaten hobe dela iduri zaut. Nik ere, eneak pasatu ditut...

Terecha : Maritchu, ez diot konpreni zertako ari ziren hola.

Joanes : Ez eta nik ere. Leialtasun poxi bat behar zinue.

Lazkano : Barkatu, Jaureguiberri jauna. Ni joaitearekin izanen duzue aizina zuen familiako gora-beheren argitzeko. Orai zure semeak zer erranen duen behar dut jakin. (Gogor) Eta nahiago nuke bertzerik ez aipatzea, plazer baduzue. Mintza zite.

Marchel : Kopaño bat hartzen ahal nukea hasi baino lehen?

Joanes : Ez.

Lazkano : Ba. (Joanes zerbaiten erraitera doala iduriturik). Badakit...zure semea da, eta zure etxean gira. Bainan beha zozu. Zerbaiten beharretan kausitzen da mintzatzen hasteko.

Joanes : Egizu nahi duzuna (Marchel-ek Wisky bat hartzen du. Botoilaren erabiltzeko eta edateko maneratik ageri du usatua dela. Bertzek behatzen dakote). Orai konprenitzen ditut lehenago konprenitu ez ditudan batzu.

Lazkano : Othoi. Utz-azue bururaino. Noiz ezagutu zinuen?

Marchel : Joan den azaroan...arats batez.

Lazkano : Nun?

Marchel : "Dantza-Etcheko" tabernan. Bazuen oren pare bat...han bi edo hiru lagunekin nintzala. Doi bat joa nintzan (jartzan da).

Lazkano : Aitzina.

Marchel : Solas egin ginuon. Zerbait hartzeko erran nakon. Ateratzean arrunt burua galdua nuen.

Lazkano : Harek ere baia?

- Marchel : Geroztik erran daut burua arrunt xoratua zuela. Bai-eta ere hogoi-ta lau oren hartan deusik jatekoa zela.
- Lazkano : Harat...lagunketa joana ote zen...bera idurietarat?
- Marchel : Ez etzen holakoa...Ala bertze lagun bati zerbitzu egitera joana ote zen? Ez dut sekulan argitu.
- Joanes : Maritchu, zoazi amarekin sala ttipirat.
- Maritchu: Bainan...nik...
- Joanes : (manatuz) Erranak erran! Tira, Terecha (Terecha ateraino laguntzen du, Maritchu harekin. Joanes-ek berriz hesten du).
- Lazkano : Eta zuk haren ganako xendrak ikasi?
- Marchel : Lehen aldian...ez niz orhoitzen ere...urrikaldurik artatu ninduen...edanak tronpaturik...ez nintzan on etxera sartzeko...
- Lazkano : Noiz ikusi zinuen berriz?
- Marchel : Hamabortz bat egunen buruan edo hola.
- Lazkano : Berriz ere edan eta edan?
- Marchel : Ba, bainan ez hainbertze.
- Lazkano : Bere estatuaren berri jakitearekin etzauntzuna ezkontzerik aipatu?
- Marchel : Ez (ixil-aldi bat) Ez ninduela maite, eta holakoak erran zauzkitan. Elgarren kidekoak izana-gatik, batzuitan haurtzat hartzen ninduen.
- Lazkano : Zuk zer karkula ibiltzen zinuen?
- Marchel : Ba...lanik gabe zen...hatxemaiteko ere etzen gauza...pilik gabe gaixoa. Zer bait emaiten nakon...nik eman diruñik etzuela nahi erran arte.
- Lazkano : Denetara zonbat eman dakozu?
- Marchel : Bana bertze, berrogoi-ta hamar bat...
- Joanes : (xutituz) Berrogoi-ta hamar (?)...Eta gainera zurrutean xahutzen zinituenak. Nundik atera zintuen berrogoi ta hamar.....heik? (Marchel-ek ez du erantzuten).
- Lazkano : Hori dut nik ere galdetzen.
- Marchel : Zure...bulegotik...
- Joanes : Ene bulegotik?
- Marchel : (Bertze ixil aldi baten ondotik) Ba.
- Lazkano : Ebatsi zintuela erran nahi duzua?
- Marchel : Ba eta ez.
- Joanes : Zer erran nahi duzu: "ba eta ez" horrekin?
(Terecha eta Maritchu sartzen dira. Marchel-ek ez du erantzuten).
- Maritchu: Ez da ene falta.
- Terecha : Barkatu, Joanes. Ez nindagon gehiago kanpoan. Barnean zer gertatzen zen jakitea baitezpadako zitzaunkun.
- Joanes : Orai erranen dautzut zertan ginuen auzia. Neska horri gertatuaz hobendun dela-ta, ene bulegotik ebatsi dirua emaiten zakola.

Terecha : Marchel, hori ohointzaz egin duzula?

Marchel : Ohointzaz...Ez ohointza ere, ordaintzeko xedetan dut egin.

Joanes : Ez dakit nola hartu duzun diru hori, nehor ohartu gabe.

Marchel : Diruaren ateratzeko zauden sei edo zazpi ageri hartu nituen. Dirua berehala emaiteko galdeginez.

Joanes : Diruaren ateratzeko ageria eman eta diruarekin gelditu, hori dea?

Marchel : Ba.

Joanes : Hartu guzietz kondu eman behar dautazu, gauzen berehala garbitzeko. Xorua alaina!...Zendako etzinautan eni galdegin?

Marchel : Ezinean ere ez ditake zure gana jin diru-eske. Ez gitutzu hola usatu.

Joanes : Hala ez denik ez erran eni. Zu beti usatua zira nahi duzunaren egiten, hasteko ta bat...

Lazkano : Eta nik ez dutala aizinarik. Ni joaitearekin konponduko zirezte. Bertze galde bat bakarrik. Neskatzak ezagutu zuen zuk eman dirua ebatsia zela, ez dea hala?

Marchel : (Nigargarri) Ba. Etzauntan gehiago hartu nahi ukan eta ez ninduen gehiago ikusi nahi izan (Bet-betan azkar). Bainan zuk nola dakizu hori? Berak erranik bederen?

Lazkano : Ez, ez daut deusik erran. Ez dugu behinere elgarrekin solasik egin.

Maritchu : Amak erran dako.

Terecha : Maritchu!

Maritchu : Jakiteko dretxoa ahal du.

Marchel : (Terecha-ren gana urrats bat eginez) Zuri erran zaukitzula? Etxera jin zena? Bainan ez...ez ditake. Etzakien nun bizi nintzan...Zer gertatu da? (Terecha-k, nardaturik, burua derabil, bainan ihardetsi gabe). Ama ken-adazu griña hau...

Lazkano : Huna. Zurekilakoak egin-eta, zure amaren Elgartasuneko obrara joan zen laguntza eske. Zure amak ez dako eman.

Marchel : Orduan zuk hil duzu. Ene laguntzea-gatik joan da zure gana, eta zuk kanporat aurtiki...Zuk hil duzu, hura eta bere sabelean zuen haurra...Ene semea, ene semea, aditzen duzua? Biak hil ditutzu, ...dohakabea zu...

Terecha : (xutituz) Ez, Marchel, adi zazu...Nik ez nakien deusik!...Ez du konprenitu!

Marchel : Ez konprenitu?...Ez duzu nehor konprenitzen!...Ez duzu nehor konprenitu nahi ere, Zu...

Maritchu : (ikaratua) Marchel...ez...ez...(Joanes-ek Marchel besotik hartzen du eta aldaratzen).

Joanes : Kasu gero, gaizo, trixte...Alde hemendik...bertzela...

Lazkano : Aski da (denak ixiltzen dira, hari behatuz. Ixo ixtant bat eta entzun. Ez dut bertze jakin beharrik. Zuek ere ez. Neska horrek bere burua hil du. Bainan denen artean hil duzue. Ez sekulan ahantz hori (banazka begistatzen ditu). Ez dut uste ez aise ahanztekoa izanen duzuela. Zuk, Andere Jaureguiberri mementorik beharreanean igorri duzu deus gabe. Zure esku zinukana ez dakozu eman nahi ukan (Terecha-k, harriturik alde egiten da. Marchel-eri): Zuk, gogoari emazu zer egin duzun...

- Marchel : (jar-lekuan, umil) Jaun zeruko saindua. Uste duzua ahantziko dutala?
- Lazkano : Mozkorkeriazko gau baten ondakin hartu duzu, abere bat izan balitz bezala, arimarik ez balu izan bezala, bihotzik gabea. Ez, ez dut uste ahantziko duzula... (Maritchu-ri) Zu...
- Maritchu: (Minbera) Badakit. Ni nizala gertatu guziaren hastapena.
- Lazkano : Ez. Etzira zu. (Joanes-i gogor) Zu izan zira denen erroa. Hogoi-ta bi orde, hogoitabotz galdetzen zituen. Ukaiten bazuen ukan. Eta horra saria. Orai zuri eskatuko dautzu harek hoitaz kondu.
- Joanes : Adi zazu, jauna...Miliunak emn nezazke...
- Lazkano : Berantegi da, diruaren eskaintzeko (Fini duela iduri du. Bakotxari behatuz. Gero erdi-bazter doa). Ez, ez dut uste hori nehoi ahantziko zautzuen. Ez eta Antton gazteari ere, denboraz maitatu eta zorion eman baitako harek. Ezta zuen eskutan orai haren zoriona, emaiteko, ez-eta kentzeko ere. Orai gaixoari elhez ere ezin erran. Zuri eginak min egiten daut, Maité (aterat doa).
- Maritchu: (Nigarrez) Hori da trixtena.
- Lazkano : (Atera baino lehen itzultzen da) Bainan, ontsa gogoan har. Maité Iturria bat hil-eta ere...oraino frango Maité Iturria eta Pettan Iturria gelditzen direla gure artean. Heien bizia, esperantza, beldur, zorion eta zoritxar frangoren baratze: hoik denak gure biziarekin kurutzatuak. Ez da nehor bakarrik bizi. Denak gizaldi batekoak gira eta elgarrekin úztartuak. Eta huna: gizonak ez badute egia hau ontsa ikasten, egun batez Jaun Goikoak erakutsiko dakote, suarekin, odolarekin, edo nahigabearekin. (Ateratzen da) Gau on!
(Bertzeak, ate aldera beha, harrituak, gelditzen dira, ez jakin zer egin. Maritchu oraino ixilka nigarrez. Terecha, jar-lekuan eroria. Marchel, bere baitakoekin borrokan. Joanes bakarrik dago, zerbaiten egiteko prest. Atea hetsi dela entzun du, xutitzen da: atera doa dudak, gelditzen da eta bertzeeri beha jartzen da).
- Joanes : (Marchel-eri hasarre) Zu zira hobendunik haundiena.
- Marchel: Ba.
- Joanes : Eta oraino ez dakizu zonbatetarainoko makurra egin duzun. Gertatu guzia hedatuko da. Zinez gauza lotsagarria.
- Marchel : Etzaut axolarik.
- Joanes : Zuk ez duzu deusen axolarik. Bainan nik, heldu den ohorezko izenen lixtan sartzea segurra nuen... (Marchel xutituz ke-xiloko aldera doa, kasik irri eginez).
- Marchel : Bainan Jaun-zerukoa gatik. Orai zer munta du izen hoitan sartzea ala ez sartzea?
- Joanes : (arras kezu) Zuretzat, ikusten dutanaz, berdin du...Haatik ebatsi hoik azken arditeraino, jornalik gabe, zure lanetik beharko tuzula ordaindu, hori etzautzu menturaz berdin izanen. Eta bazter guzietan mozkortzea eta taberna-zokoetako emaztekilakoak fini direla...(armairurat doa wiskey bat hartzen du)
- Terecha : (indar hartzen hasia). Marchel lotsa bat emaiten dautazu.
- Marchel : Ez da hori gaizkiena. Bainan ez ahantz eni ere lotsa bat emaiten dautazuela...biek...Bai bie...

- Joanes : (Bere emaztearen jar-leku izkinan jarriz) Ixo! Zure amak eta nik egin ditugunak zerbaiti buruz egin ditugu...ondorioak, zorigaitzez...uste ez bezalakoak izan badira ere. Hala da hori.
- Maritchu: (Nardatuskoa) Ba, hala da.
- Joanes : Zuk zer duzu erraitekorik?
- Maritchu: Ez dakit nundik has.
- Joanes : Etzitela has ba! Ala uste duzu zu entzun nahiak girela?
- Maritchu: Nik ere gaizki egin dut. Ene egitateak min egiten daut. Bainan badakit... berriz hasiko zirezte...deusik ez dela gertatu den hori...xorokeria bat dela...ez dela deus zuzendu beharrik...
- Joanes : Gaizki ari zira. Arats huntan frango ikasi dut. Zer ikasi dutan? Aski dut orhoitzea ene gogoko gauzez, duela zorbait oren...bortzak mahain hunen inguruan jarriak gihelarik...
- Marchel : (moztuz) Ba, eta gogoan duzuia afal ondoan halako furfurian, Antton eta bieri erran daukuzuna? Gizon bakotzak bere bidea behar duela bilatu: berretzat lan egin, bere onarentzat. Eta ez dela kasurik egin behar bertzeri ere behatu behar dela dioten izpiritu ahuler. Orhoitzen zireba ba?...Ba, eta holako izpiritu ahul bat agertu da bet-betan...poliza-gizona. Ez dautzut entzun holakorik erraiten horri.
- Maritchu: (Bet-betan) Orduan jin dea poliziera? Aitak hori erran-eta? (xutituz Marchel-en gana doa).
- Marchel : Ba...bainan zer duzu?
- Joanes : Zer gertatzen zautzu orai, Maritchu?
- Maritchu: (denbora hartuz) Harritzekoa...zinez harritzekoa...(behatzen du bertzer)
- Terecha : (Dardara poxi batekin) Badakit zer erranen duzun. Neure buruarekin ari niz heian...
- Maritchu: Orai ez du muntarik...Bainan...egiazki poliziera ote zen?
- Joanes : Hala ez bazen, orduan denak bertzalde dira hemen erran guziak.
- Maritchu: Enetzat ez. Eta zuentzat ere ez lukete bertzalde behar.
- Terecha : Ez izan hoin haurra, Maritchu!
- Maritchu: (Bet-betan azkar) Ez niz ez haurra. Eta haundiagoa erranen dautzuet: haurrak ere baino haurragoak zuk zirezte hemen, gertatu dena ez nahiz onetsi.
- Joanes : Etzira eni hola mintzatuko. Zoazi zure ganberalat.
- Marchel : Gaztigu haundia izanen da hori horrendako.
- Maritchu: Bainan etzireztea oharitzen, gaur hemen erran direnak egiak balinbadira, ez duela muntarik nork atera-razi daukun. Gertatu denak du munta, ez polizakoa zen hori ala etzen...
- Marchel : Guretako, beti, hala izan da.
- Maritchu: Hori garbitu nahiz ari niz, Marchel. (Burrasoer) Bazuen halako zerbait...etzuen hirizaina emaiten...
- Joanes : Ni ere hortako! (Terecha-ri) Eta zu?

- Terecha : Haren moldeak bereziak ziren...hain nagusi...hain gogor...
- Joanes : Eta eni nola mintzatu zautan...ixiltzeko erranez. Auzapez izana nizala badaki, eta oraino bakezko juje lehena...Bertzalde horren mintzatzeko moldea...erran nahi dut ez direla hola mintzo, alta holako zombait zombaiten berri badakit nik.
- Maritchu: (Astiz) Jada etzakienik ez dakogu deus-ere erran. Ohartu zireztea?
- Joanes : Hoinbertze mintzatu ez bagina...(Kexu-kexua behatzen du dener) Hala da ta! Nik ez dakit zendako behar zinuten hoinbertze mintzatu.
- Maritchu: Orai erre~~x~~ da mar-mar-mar artzea...Harek nahi izan dituen guziak guri aitor-arazi.
- Terecha : Eni hasteko ez daut "aitor-arazi", zuek diozuten bezala. Nik egin dutana erran dakot, eta daukat ontsa egin dutala.
- Maritchu: Bainan, ama...
- Joanes : Dena dela zuri ederrak atera dauzkitzute. Hoi da gaitza.
- Terecha : Joanes!
- Joanes : Ez zuri ez, maitea. Bainan horier bier...Zinez, gure etsai bat da. Gu guzien kontra jin den pondutik, eta lehenago ere ba! Eta zuek, gogor egiteko orde, zuen eremuetan sartzera utzi...Hariak moztu behar zinazkoten.
- Marchel : Zuk moztu dakozunik ere ez dugu gero ikusi.
- Joanes : Zure ohointzak aitortuak zinintuelakotz...harekin bakarka mintzatzera behar nuen ari.
- Marchel : Etzinuen deusik ardietsiko.
- Maritchu: Egia...(Atea, ixil-aldi bat. Elgarri beha beldurrez)
- Joanes : Nor ote da orai? Johan niz ikustera...
- Terecha : Ez, Katti joanen da. Dutea egin artio ez dadin oherat joan errana dakot.
- Maritchu: Antton ditake, berriz heldu.
- Joanes : (trankilduz) Ba...Betikotz ahantzia naukan. (Antton sartzen da)
- Antton : Ez ahal dautzuet trabarik eginen.
- Terecha : Ba, zera!
- Antton : Badut ene arrazoina. Poliziera noiz joan da?
- Maritchu: Ez du aspaldi. Nahi zuen guzia egin du gurekin.
- Terecha : Maritchu!
- Maritchu: Zertako ez du behar jakin?
- Antton : Nola?...Nola...egin ditu gauzak?
- Joanes : Berak nahi bezala...gu arranguretan uzteko gisan?
- Terecha : Enekin eta Joanese-ekin, arras molde berezian. Zendako ba? (denak Anttoneri beha jartzen dira eta behatzen dakote jakin nahiz)
- Joanes ; Zuk badakizu zerbait. Zer gertatzen da?
- Antton : Gizon hori ez da hiri-zainetarik.
- Joanes : (Berotua) Ederki, Antton. Zer dakozu, galdegin?

- Antton : Bidean, hirizainen sardient bat aurkitu dut, aspaldiko ene laguna, eta galdegin dakot heian ezagutzen duen Lazkano poliziera. Nolakoa den erran dakot eta ez Lazkano eta ez gisa hartakorik ere etzela erran daut.
- Joanes : Berrogoi mila debru! Gezur zilo bat!
- Terecha : Ez nauzuena errana? Etzitakela hura bezala mintza egiazko polizier bat!
- Antton : Egia duzu. Polizier hori gezurrezkoa zen.
- Joanes : Xuxen jakin behaut.
- Terecha : Nola?
- Joanes : (telefonari) (Hirizainen buruzagia deituz)
- Terecha : Kasu! Zer erraiten duzun!
- Joanes : Ba, ba. (telefonan) zortzi, zazpi, bortz, bi... (Bertzeri) Nola-nahizik banuen hunen egiteko xedea. Hastetik izan dut ene beldurra. Robert aitzindaria?...Joanes Jaureguiberri hemen. Ontsa Robert?...Barkatu hoin berant deitzen bazituz, bainan...Berrikitan jinik Lazkano polizierrik ez duzu zure gizonetan?...Ba Lazkano. Lazkano. Berria, ba berria. (ikus-lierra nolakoa zen erraiten dako: ttipi edo haundia, gizen edo mehats)...konprenitzen dut...ez da dudarik...Ez, gure arteko eztabada ginuen...Es-ker mila...Agur Robert. Ez da Lazkano polizierrik...ez-eta gaur hemen izan denaren trakakorik ere. Gizon hori etzen hirizaina, bainan ba Antton-ek erran duena...gezur-zilo bat
- Terecha : Etzuen bertzek bezala emaiten solasa...Eta bertze itxura bat zuen.
- Joanes : Ordñan debaldetan ziren gure odol-gaixtoak. Beraz ez du afera horrek gu-rekin ikustekorik.
- Maritchu : (xixtakor) Orai berriz onak gira, denak onak!
- Joanes : Erraitea balio duenik ez baduzu, ixil zitazke Maritchu!
- Marchel : Ez baitako ixiltzeak arrazoinik kenduko.
- Joanes : (hasarre) Zu ere zaude ixilik. Hirizain bat izan balitz aitormen hori entzun dautzuna...
- Terecha : Kasu, Joanes!
- Joanes : (agudo) Ba, ba.
- Maritchu : Ikusten duzu, Antton. Gure bertze ttipikierien jakiteko eskubiderik ez duzu.
- Antton : Ez, ez. Ez nuke hetan gozatú nahi. (Joanes-eri): Zuri zer zautzu?
- Joanes : Norbaitek igorri du gure berrien zilatzer. Hastetik ohartu beharrak... Bertze egun bat izan balitz ohartuko ginon, bainan...pesta ondarrean gu ere...eta alegeratuak. Hortan harrapatu gitu.
- Terecha : Gizon hori sartzean ikusi banu! Eni galdeak egin baino lehen, nik eginen nazkon berari.
- Maritchu : Orai ba erraiten.
- Terecha : Bakarra niz hemen, amor eman ez dakotana. Eta orai denen ondotik, astiz behar ginuke ikertu gertatu dena eta zer dugun zgiteko.
- Joanes : Hori bera, maitea. Gauza bat dakigu: gizon horrek nahasi gituela. Jar zite, Marchel.

Marchel : Ontsa niz hola ni.

Joanes : Ontsa? Beraz zeri erraiten dakozu, gaizki izaithea? Ez duzu ibili behar.... zera...

Marchel : Nola ez dut ibili behar?

Joanes : Gurekin deus xuxentzekorik ez bazinu bezala. Orhoit zite zer egin duzun. Hobendun haundiena zu zira. Beharko duzu, hemendik aitzina, chuchenago jokatu.

Marchel : (onetik ateraz) Zer "hemendik aitzina"? Deusik gertatu ez balitz bezala ari zireztea orai? Nik ez dut hola ikusten...Neskatxa hil da, eta nehork eztu piztu nik dakitanaz?

Maritchu : (lehiatsu) Ba, eni ere hola iduritzen zaut, Marchel. Bainan horrek ez du konprenitzen.

Marchel : Poliziera nor zen ez dakit. Bainan nik egin dutala egin dutana eta amak ere ba. Eta zuen hutsa ez ttipiagoa. Hirizainari erran ala ez erran, guk egin ditugunak izigarriak dira. Zuen iduriko hobeki egon behar huke...Bainan ez. Bulegotik ebatsi dut, Antton; ez dakit zertako eztuzun jakin behar... (Joanes-ek ixil-arazi nahi du) Etzaut axolaik jakinik ere. Diruarena deusik ezta. Neskatokoari gertatuak egiten daut min. Eta hoik ikusiz, ez nagoke ni, jarririk, gostuan, solasean.

Maritchu : Marchel-ek arrazoin du. Arats huntan erran den gauzarik gisakoena oraixetan erran du. Hori entzun-ta, nihauk ere ene buruaz lotsa gutiago dut. Zendako behar dugu hastean bezala egia itsutuz ibili?

Joanes : Jainko benedikatua!

Terecha : Joanes!

Joanes : Ene onetik ateratzen nute. Ez dute ikusi nahi gauza horien hemen aipatzea eta jende-artean hedatzea arras bi gauza direla.

Marchel : Berriz ere nik diotana da hura hil dela eta denen artean hil dugula.(Oihuka) Hori da hemen ikusi behar duguna.

Joanes : (Oihuka eta Marchel-eri eskua hedatuz) Nik diotana, ixiltzeko, edo etxe huntarik alde egiteko! (Behin, behatzen dako, eta gero segitzen) Ez lezake bertze aita batek jasan nik gaur jasaiten dutana. Badakizu, hemen egon nahi baduzu, ixo!

Marchel : (bulegora joanez, boz-erdiz) Hemen egon ala ez egon, ez dut axolarik.

Joanes : Hemen egon beharko duzu ebatsia ordaindu arte.

Maritchu : Ez dako horrek emanen Maité Iturria-ri bizia.

Marchel : Ez-eta guk denen artean hil dugulakoan deus aldatuko ere!

Antton : Bainan, hila hil?

Marchel : Ezagun da ez dakizula gertatu guziaren berri.

Maritchu : Orai errangoo ote zinuke etzirela joan den udan Maité Iturria-ekin ibili?

Antton : Ba ibili niz. Barkatu, Maritchu. Beha ontsa...Poliziera omen delako gizon bat agertzen da. Eta zer du egiten? Han eta hemendik bildu egia puskokin zozoturik ezarrita, noizbait neska horrekin zer bait izan dugula aitor-arazi ere ba...

Marchel : Eta hola izanki.

- Antton : (Marchel-en gana joanez) Nolaz dakizu neska hura bera zela?
- Joanes : (Argitzea-gatik) Hala izan ditaken ikus dezagun...heian...(dudaka)...Ez... ez ditake.
- Marchel : Denek ezagutu dugu.
- Antton : Zuek denek erraiten zinuten neskatxa "batekin" gertatua, bainan nork daki neskatxa hura bera zenetz. (Dener goratik behatzen du) (denak harrituak. Joanes-en gana doa). Jaureguiberri, jauna, zuk Maité Iturria-ren izeneko langile bat kanpo ezarri zinu. Etzinen orhoitzen, bainan harek argazkia erakutsi-ta, orhoitu zinen. Ez dea hala?
- Joanes : Ba hala da. Eta zer?
- Antton : Ederki. Gizon harek badaki noizbait Maritchu-k Milward-ko langile bat igor-arazi zuela eta argazkia ateratu-ta, Maritchu-k ezagutzen du haren potreta.
- Maritchu: Argazki edo foto hura bera zen.
- Antton : Nolaz dakizu hura bera zela. Zure aitari erakutsi hura ikusi zinuena?
- Maritchu: Ez.
- Antton : Eta zure aitak, zuri erakutsia?
- Maritchu: Ez-ta-re. Badakit norat ari ziren.
- Antton : Bera zelako frogarik ez duzu. Eta neskatxa bera zelakorik ere ez. Eta orai eni gertatua. Nik ez dut argazkirik ikusi. Izena kanbiatu-ta, bet-betan Luicha Mendiri deitu zela jakiteak salatu daut. Eta, egia-errian, Luicha Mendiri bat ezagutu dutalakotz galdu niz.
- Joanes : Eta Mendiri hori, Maité Iturria zelako frogarik ez du atera. Harek berak errana dugu ontzat hartu. Polizakoa zela erran daukularik bezala. Eta hau gezurra gertatu denean, bertzea ere hala izaiten ahal.
- Antton : Hori, hori. Segurrenik ere gezurra. Ni lekutu nizalarik zer gertatu da?
- Terecha : Galdegin daut heian, duela bi aste, ene biltzar-toki-ra jin zenetz. Eta nik, xoro bat bezala, baietz erran.
- Maritchu: Bainan, ama, etzazula ahantz, argazki batean ezagutu duzula neska haren potreta.
- Antton : Bertze nehork ikusi duia? (Ez dute ihardesten). Beraz ez da nehon frogarik. (Marchel-eri) Marchel, zuri erakutsi dautzia argazkirik?
- Marchel : Ez. Ene aldia jin zelarik, ez nuen beharrik. Amak ikusi hura bera izan behar zen.
- Antton : Nolaz dakizu?
- Marchel : Ebatsi-dirurik ez nahiz joana zelakotz eske. Eta nik ezagutu dutanak ere hori bera zauntan erran.
- Antton : Potretarik gabeko...xauxunkeriak!
- Marchel : Ez dut uste xauxunkeria den heskaren hiltzea!
- Antton : Zoin neska? Lau edo bortz baziren gutienetik eta...
- Marchel : Berdin zaut. Enea hil da!
- Joanes : Nola dakizu?

- Antton : (Maritchu-ri) Ontsa dio. Nork egistatuko du gaur neska horrek here burua hil duela?
- Joanes : (Marchel-eri furfurian) Hea ihardets horri! Etorri denaren ondotik beha dezagun gertatuari. Familiako pesta baten ohoratzen ari ginen goxoki... Berak gauza izigarri bat plantatu dauku hastetik, eta gero aise egin du gurekin nahi zuena. Eta haste jokotria! Neska bat hil dela-ta zoraturik ezarri gitu: pozoina edan duela, oinaze izigarrietan hil dela.
- Marchel : Zaude ixilik, berriz hasi gabe!
- Antton : Egia jakin ditake!
- Maritchu: Nola?
- Antton : (telefonarat joanez) Ez dut batere beldurrik nihauk egiteko. (Izenen liburuan bilhatzen du. Denak aiduru, tuntik ez da aditzen) zortzi, bederatzi, zortzi, sei...Eritegia? Hemen Garakotch Konpainiako Antton jauna...Ba, gure langiletako neska bati zer gertatu ote zakon arranguran gira. Gaur aratsaldean, pozoina harturik, bere burua hil duen neskatorik ekarri dutenez horrara?...Ontsa da, egonen niz beha (Bertzek intinik gabeko ixiltasuna daukate. Marchel, Maritchuren gana doa, Joanes kopetari torraka, Maritchu dardaraño batekin, Marchel eskuak kurutzatuz eta libratuz) Ba...Segur zira?...Ba. Milesker. Gau on (Mozten du) Gaur ez da neskarik hil eritegian. Eta badu zorbait ilabethe ez dutela ukan bere burua hil duenik.
- Joanes : (botzik) Ikusten? Hori da egia. Eta gainerateko guzi, guzia, gezurra. Hau jendeaz trufatzea (bere buruaren arintzeko asperen batekin). Etxako nehorri atsegin bere bizkar hola bertzek irri egitea bainan, bainan...halarikan ere (irri eginez doa bertzeri buruz). Tragotxo bat, Antton?
- Antton : (irria heldu huni ere) Milesker. Ezta gaizki etorria.
- Joanes : (Bi whisky ateraz) Nihauk ere erraiten ahal dut.
- Terecha : Argi ta garbi ikusi dugu azkenean, Antton. Milesker (jar bedi)
- Antton : Ba, atera-ta ibili nizan hortan, ukan dut aizina lasaitzeko eta gauzen hobeki ikusteko.
- Joanes : (Edaria Antton-i emanez) Antton jartzen da) Ba, zu etzitu gu bezala itxinduen gainean atziki. Aitortzen dut bet-betan agertu den hortan berean, me nekotu nuela. Bertzenaz ere ez nuen holako arrangura beharrik oraixe (bere basoa betetzen du). Zure osagarriari! Maritchu, etzitela hola egon! Fini da.
- Maritchu: Dorpena finitu da. Bainan nik ezineahantzizko batzu, ahantzi tuzu orai. Hemen erran dena, zinez gertatua da. Eta ez gaizki finitzea da zorion haundia. Bainan gaizki fini zataiken.
- Joanes : (Jostaketan) Bainan, halere, ezta berdin, ez dea hala? Hori ez dezakezu uka (ikusliarraren sinoekin): "zuek denek hila da" (Marchel eta Maritchu behatuz)... Hori erran duelarik egin duzuen begia ikusi bazinute! (Maritchu, xutituz, alde batera doa).
- Maritchu: Banoa hemendik. Ikara bat emaiten dautate zure hitzek.
- Joanes : Korokeriak! Zuk ere ordu zinuکه arrailorrian hasteko! Orai hoberena duzu Anttoni itzuli eraztunaren berriz galdetzea.
- Maritchu: Gauzak lehengo pondu berean nahi zinuškete hartu zuek?

Marchel : Nik ez.

Maritchu: Zuk ez, bainan bertze guziek ba.

Joanes : Zendako ez? Gure bizkar irri egin dutela: bertzerik ez da hor.

Maritchu: Beraz denak lehen bezala? Eta ez deusetaz damutzerik? Ez-eta hor bertzal-
diko deus eskolarik? Beraz lehen bezala bizi gitazke?

Terecha : Zendako ez?

Maritchu: Nik erranen dautzut. Polizierra, zen bezalakoa, etzen nehoren bizkar jos-
tatzerat jina. Aitzinean konprenitzen zinuten...hasiak zinezten zerbaiten
ikasten. Bainan...bid-erditan gelditu. Dudarik gabe, lehenago^{ko} bide berari
segitzekotan zirezte.

Joanes : (alegera) Eta zu eza?

Maritchu: Ez, gogoan daukat zer erran duen, nola erran duen eta zer zarrazta eman
dautan. Hortaz orhoituz nola ahantz ene odol guzia kezketan ezarri duen
sua eta beldurra. Zuen bapo axola-gabea sartzen zaut bihotzeraino eta
ezin dut onetsi.

Marchel : Ni ere zurekin. Beldurrez ni ere (ate ondoan dagon arrebaren ondoan jar-
tzen da).

Joanes : Zoazte ohera eta ez dezagun bertze grifarik pitz.

Terecha : Ez dira beren hartan gaur. Bihar guri bezain irringarri idurituko zakote
hau guzia.

Antton : (Maritchu-ren gana joanez) Dena argi ta garbi da Maritchui (eraztuna ate-
ratzen du) Eraztun hau zer egin behar dugu?

Maritchu: Ez, oraino ez...Berriegi da. Pentsaketak egin behar tut.

Joanes : (Marchel eta Maritchuri) Beha hoierei. Oraiko jende pizkorra...denak daz-
kiena...eta arraillerian ez dakiena.

(telefonak jotzen...bi etan...ixiltasun osoa, Joanes-ek azkenean hartzen
du).

Ba...Jaureguiberri jauna mintzo...Nola?...Zer diozu?...Zer?... Zu...zu!
(denak hurbiltzen dira, itxura guzien arabera moztu dute. Joanes -ek
ere uzten du. Geldirik, bertzer beha, begi izitu batekin)...Poliziatik
da. Neskatx bat hil da eritegira zeramatelarik pozoina edanik. Eta hiri-
zain bat heldu da...galde batzuen egitera.

F I N